

OROITIDAZKIA



2 0 0 8



**Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa**

**Agencia Vasca de
Protección de Datos**

**Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren
Jarduerak**

Argitalpena:

© Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

Argitaratzailea: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

Internet: www.avpd.es

Jabetza intelektualaren eskubideak babesten du lan hau. Legeak aitortzen dizkion eskubide guztiak gordeta dauzka, honakoak barne: itzulpena, berrinprimaketa, irratia bidezko, telebista bidezko nahiz Internet bidezko (web orria) transmisioa, erreprodukzio fotomekanikoa edo bestelako erreprodukzioak eta datuak prozesatzeko instalazioetan biltegiratzea, nahiz eta zati batean baino ez erabili.

Aurkibidea	Orrialdea
1. AURKEZPENA	5
2. ZUZENDARIA BERRITZEA	8
3. KONTSEILU AHOLKU-EMALEA	9
3.1. KONTSEILU AHOLKU-EMALEAREN OSAERA	9
3.2. KONTSEILUAK EGINDAKO BILERAK	9
4. PLAN ESTRATEGIKOA EGITEA	11
4.1. ZERGATIK PLAN ESTRATEGIKO BAT ORAIN?	11
4.2. MISIOA	11
4.3. IKUSPENA	12
4.4. BALIOAK	12
4.5. INTERES TALDEAK	12
4.6. ARRAKASTAKO FAKTORE KRITIKOAK	14
4.7. ARRAKASTAKO FAKTORE KRITIKOAK, JOMUGAK ESTRATEGIKOAK ETA HELBURUAK	14
4.8. 2009ko KUDEAKETA PLANA	16
5. LEGEBILTZARREKO AGERPENEA	17
6. AHOLKULARITZA EGINKIZUNA	18
6.1. IRIZPENAK	18
6.2. IRIZPENAK	21
6.3. AHOLKULARITZA BILERAK, POSTA ELEKTRONIKOZ ETA TELEFONO BIDEZ NAHIZ BERTATIK BERTARA EGINDAKO KONTSULTEI ERANTZUTEA	22
7. KONTROL EGINKIZUNA	23
7.1. BABES PROZEDURAK	23
7.2. SALAKETAK	23
7.3. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARAU-HAUSTE PROZEDURAK	23
7.4. ZEHAPEN PROZEDURETAKO ESPEDIENTEAK	24
8. IKUSKARITZA SEKTORIALA HEZKUNTZA ARLOAN	25
9. EUSKADIKO DATUAK BABESTEKO ERREGISTROA	26
9.1. INFORMAZIOAREN ITURBURUA.	26
9.2. INSKRIPZIO ESKAERAK.	26
9.3. ERAKUNDE DEKLARATZAILEAK.	27
9.4. INSKRIBATUTAKO FITXATEGI AKTIBOAK 2008an	28
9.5. INSKRIBATUTAKO FITXATEGIEN BANAKETA, ERAKUNDEAREN ARABERA	28
9.6. INSKRIBATUTAKO FITXATEGIEN SEGURTASUN MAILAK	28
10. EUSKADIN DATU PERTSONALEN BABESAREN GAINEAN DAGOEN PERTZEPZIO SOZIALARI BURUZKO TXOSTENAK ETA AZTERKETAK	30
10.1. PRIBATUTASUNERAKO ESKUBIDEARI BURUZ ETA DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN EXISTENTZIARI BURUZ HERRITARREK DUTEN PERTZEPZIO SOZIALARI BURUZKO INKESTA KUANTITATIBO BAT EGITEA.	30
10.2. DATU PERTSONALEN BABESAREN ARLOAN ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN NOLA JARDUTEN DUTEN AZTERTZEKO INKESTAK PRESTATZEKO AURRE LANA.	31
11. PRIBATUTASUNAREN KONTZEPTUA ETA DBEBREN JARDUERAK ZABALTZEA HERRITARREN ARTEAN ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARTEAN	32
11.1. PRIBATUTASUNARI ETA BULEGOARI BURUZKO ZABALKUNDE MATERIALAK EGITEA	32
11.2. DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA KOMUNIKABIDEETAN	33
11.3. DATU BABESAREN EUROPAKO EGUNA (2008ko URTARRILAK 28)	33
11.4. WWW.AVPD.ES WEB ORRIAREN ERABILERA	34
12. DATU PERTSONALEN BABESA EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMAN	36
12.1. KONTUA: ZEUK ERABAKI DATUA KANPAINA PRESTATZEKO LANA	36
12.2. CLI-PROMETEO PROIEKTUKO INKESTAK EGITEA	36
13. DATU PERTSONALEN BABESAREN INGURUKO SENTSIBILIZAZIOKO ETA PRESTAKUNTZAKO MATERIALAK SORTZEA.	38

13.1.	LANGILE PUBLIKOEN SENTSIBILIZAZIO ETA PRESTAKUNTZARAKO BIDEO BATEN BANAKETA ETA ZABALKUNDEA	38
13.2.	BIOMEDIKUNTZAREN ARLOAN EGITEN DEN DATU PERTSONALEN TRATAMENDURAKO JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUA	40
13.3.	DATUAK BABESTEKO IRLANDAKO AGENTZIAREN PRESTAKUNTZA-BIDEO BATEN EGOKITZAPENA	40
13.4.	DATUAK BABESTEKO ESPAINIAKO AGENTZIEK ESKOLA UMEEI ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO PRIVATUTASUNARI BURUZKO PROIEKTUEN AZTERKETA ETA PROIEKTU KOMUN BAT GARATZEKO AUKERA	41
14.	EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN DATU PERTSONALEN BABESAREN ARLOAN ALDAKETAK BULTZATZEKO EGITASMOAK SORTZEA	42
14.1.	TOKI ERAKUNDEETARAKO JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUA.	42
14.2.	DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZKO EHUREN ARAUTEGIAREN ETA ARAUDIAREN ATAL GARRANTZITSUENAK MODU GRAFIKOAN NABARMENTZEN DITUEN PAPERETZKO BERTSIO BATEN ARGITALPENA	42
14.3.	LANKIDETZA HAUR HEZKUNTZA ESPARRU PUBLIKOAREKIN, INFORMAZIO PERTSONALAREN ESPARRUAN JARDUNBIDE EGOKIAK HARTZEKO	43
15.	ESPERIENTZIAK ETA IKASTAROA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN	45
15.1.	HAINBAT JARDUNALDI EAEKO TOKI ERAKUNDEETARAKO DATU PERTSONALEN BABESAREN ARLOKO JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUA TOKIKO FUNTZIONARIOEI AURKEZTEKO.	45
15.2.	PRESTAKUNTZA PROIEKTU PILOTU BAT GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO PRESTAKUNTZA ATALEAN ETA FORU ADMINISTRAZIO INFORMAZIOAREN ATALEAN.	46
15.3.	IKASTARO BAT HOBETUZ-LANGILEEN PRESTAKUNTZARAKO FUNDAZIOARENTZAT	47
15.4.	KONTSUMOA ETA DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO IKASTAROA	48
15.5.	HAUR ETA NERABEEN ARRETA ETA BABESARI BURUZKO ESPARRUAREN BAITAN DATU BABESARI ETA KONFIDENTZIALTASUNARI BURUZKO JARDUNALDI PROFESIONALA	49
15.6.	INFORMAZIOAREN KUDEAKETARI ETA DATU BABESARI BURUZKO IKASTAROA BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO GIZARTE URGAPENERAKO FORU ERAKUNDEARI (GUFE-IFAS) ZUZENDUTA.	49
15.7.	EUSKAL HERRIKO POLIZI IKASTEGIKO JOKU ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZAKO IKUSKATZAILEEI ZUZENDUTAKO IKASTAROA	50
15.8.	EUSKADIKO LEGEBILTZARREKO ADMINISTRAZIOARI ZUZENDUTAKO IKASTAROEN PROGRAMAZIOA	51
16.	BESTE ADMINISTRAZIO, AGENTZIA ETA ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK ETA LANKIDETZA	53
16.1.	NAZIOARTEKO ZENBAIT FOROTAN PARTE HARTZEA.	53
16.2.	LANKIDETZA DATUAK BABESTEKO ESTATUKO BESTE AGENTZIA BATZUEKIN	54
	16.2.1. Koordinazio taldeen funtzionamendua	54
16.3.	DATUAK BABESTEKO ESPAINIAKO AGENTZIAREN KONTSEILU Aholku-EMAILAN PARTE HARTZEA	57
16.4.	DATU PERTSONALEN BABESAREN ARLOKO HITZALDIETAN, MINTEGIETAN ETA BESTELAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEA	58
16.5.	HITZARMENAK	58
	16.5.1. Izenpetutako hitzarmenen jarraipena	58
	16.5.2. Hitzarmen berriak izenpetzea	59
16.6.	INNOBASQUERI ATXIKITZEA ETA INNOBASQUEKO TALDEETAN PARTE HARTZEA	59
16.7.	DBLO GARATZEN DUEN ERREGELAMENDU BERRIA ONARTZEAREN ONDORIOZKO JARDUERAK (BERARIAZKO EDUKIAK WEB ORRIAN, BERARIAZKO ELKARRIZKETAK INFORMATIKA ETA TELEKOMUNIKAZIO ZUZENDARITZAREKIN ETA EJI EREKIN...)	59
17.	BARNE KUDEAKETA	61
17.1.	PERTSONEN KUDEAKETA	61
	17.1.1. 2008ko aurrekontu-plantilla	61
	17.1.2. 2008an lanean egon diren langileak	61
17.2.	AURREKONTU, KONTABILITATE ETA ONDARE KUDEAKETA	62
	17.2.1. 2008ko aurrekontua	62
	17.2.2. 2008ko Aurrekontu exekuzioa	62
17.3.	BALIABIDE MATERIALAK	63
	17.3.1. Egoitza	63
	17.3.2. Beste zenbait kontratu txiki	63
17.4.	EGITURA TEKNOLOGIKOA ETA APLIKAZIOAK GARATZEA ETA HOBETZEA	64

1. Aurkezpena

Norbanakoen bizitza pribatua babestea XXI. mendeko gizartean

2004an Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (DBEB) abian jartzeko egitasmoa gidatzeko deitu zidatenean, ez zitzaidan burutik pasatu ere egin lanbideko erronka berri hura hain konplexua izan zitekeenik: egia esateko, pribatutasunerako eskubidea eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa eratzeke eginkizuna hasieran uste nuena baino esparru zabalagoak eta emankorragoak gertatu zaizkit, bai gaiaren beraren mamiaren aldetik bai eta bertako jardueragatik ere. Pozez bete nau, lehen lau urteen 9buruan, berriro neuri esan izanak hurrengo lau urteko aldi (2008-2012) ere zuzendaritzan segitzeko; izan ere, uste baitut Bulegoan lan egiten dugun guztion lan onari zor diodala.

Hitzaurre honetaz baliatu nahi dut, alde batetik, DBEBren azken jardueren berri emateko, eta, bestetik, pribatutasunari eta datu pertsonalen babesaren egungo egoerari buruzko zenbait ideia emateko, eta, hartara, jarduerari ere testuinguru bat emateko.

Pertsonen eskubideen artean egiten den bereizkuntza ezagun batek dioenez, hirugarren belaunaldiako eskubideak aurrerapen zientifikoek eta teknologikoek eragin ditzaketen kalteen aurrean norbanakoengan nahiz gizartearengan sortu den babes premiak eraginda sortu dira. Beraz, ingurumenaren babesaz eta elkartasunarekin, osasunarekin edo identitate sexualarekin lotutako babes sozialez gain, nortasunarekin lotutako beste eskubide asko ere arautu egin dira, adibidez, pribatutasunerako eskubidea.

Datu babesaren sorrerari begiratuta, esan behar dugu DBEBk zenbait zerbitzu berri antzeman dituela administrazio publikoetan, gehienak administrazio elektronikoarekin lotuta, pribatutasunerako arrisku potentzial handia ekar dezaketenak datu pertsonalen babesaren kudeaketaren esparruan. Hori dela eta, DBEBk tartean dauden administrazio publikoei aholkularitza emateko jarduerak sendotu ditu, hartara, administrazio horiek, egiten dituzten arau eta prozeduretan, hasiera-hasieratik jaso dezaten teknologia digital berriek duten inpaktua haien bezero diren herritarren pribatutasunean. Ildo horretan, DBEB bere irizpide espezializatuaz baliatu da hainbat proiektuen gaineko irizpenak emateko, adibidez: bezeroekiko harremanak kudeatzeko aplikazio bateko datu pertsonalen fluxu-eragiketa bati buruzko irizpena; herritarrentzako kanal anitzeko arreta zerbitzu baten gaineko irizpena; Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzeko lege-arau bati buruzko irizpena eta toki administrazioetan eta autonomikoetan administrazio elektronikoa hedatzeko lankidetzak hitzarmen baten gaineko irizpena.

Aholkularitza eginkizuna ezinbestekoa da gure helburuei begiratzen badiegu; izan ere, eginkizun horri esker lor dezakegu lege esparruko ez-betetzeak saihestea eta pertsonen pribatutasuna ez errespetatzeagatik egon daitezkeen mehatxuak nahiz benetako kalteak bazterrean uztea. Horretaz gain, kontrol eta ikuskaritza eginkizunek ere pisu handia izan dute, bai eta, epealdi horretan tartean egon diren erakundeei egindako gomendioek ere, esate baterako, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egindako ikuskaritza sektorialaren barrukoak. Edozelan ere, jarduera horiek garrantzi handia izan arren, DBEBk pertsonen eskubideak babesten eta esparru horretako gatazkei konponbideak bilatzen segituko du, salaketa-espeditenteak ebatziz, jarduera hori ere Bulegoaren funtsezko eginkizunetako bat izateaz gain, nahitaezkoa delako; izan ere, eginkizun horri esker Bulegoak jakin baitezake zein datu tratamenduk egiten dien pertsonen benetako kaltea. Zentzu horretan, azpimarratu behar dugu bideo zaintzarekin zerikusia duten arazoak etengabe handituz doazela.

Horietaz gain, Bulegoak ezagutza bultzatzeko jarduera ildo bat ere badu, erakundeetan datu pertsonalen kudeaketaren arloan jardunbide egokiak har ditzaten bultzatu nahi duena. DBEBren eta administrazio publikoen arteko elkarlaneko lan ildo horren 2008ko emaitzak izan dira aurrerabideari begira garrantzi handiko dokumentu bi hauek: Euskal Herriko Unibertsitatearen

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Arautegia eta Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeetarako Jardunbide Egokien Eskuliburua. Bi baliabide horiek, ordea, berez ez dira nahikoa datu pertsonalen kudeaketaren esparrua aldatzeko; izan ere, jardunbide egokien berri eman arren, bertakoei argi azaldu behar zaie zer diren, ondo uler ditzaten. Gainera, datu pertsonalekin lan egiten duten pertsona guztiek izan behar dute horien berri, ez bakarrik informazioaren antolamenduaren esparruan erantzukizun zuzenak dauzkaten pertsonak.

Alderdi hori azpimarratu nahi nuke, langile askok datu pertsonalen arloko araudiaren berri badute ere, araudia ez delako era automatikoan ezartzen lan esparruan. Hau da, beti ez delako hain erraza izaten, irizpideen, eskubideen eta betebeharren esparru orokor batetik abiatu eta gauza bat nola egin behar den edo nola ez den egin behar ondorioztatzea, sarritan irizpideak ere ez direlako behar bezain zehatzak edo zorrotzak izaten. Are gehiago, nahi bada administrazioetan eta lanbide-jardueretan pribatutasunarekiko errespetuz jokatzeko duen informazioa erabiltzeko erak txertatzea, nahitaezkoa da arau horiek interpretatzeko eta gauzatzeko egon daitezkeen aukeren artetik datu pertsonalak kudeatzeko egokienak hautatzea, hau da, datu-babesa eta, aldi berean, lanbide-jardura eraginkorra bermatzen dutenak.

Azken batez, uste dut funtsezkoa dela jakintza aplikatuen (Medikuntza, Hezkuntza, Psikologia, Estatistika, Zuzenbidea, Zientzia Politikoak eta abar) esparruko profesionalek autodeterminazio informatiboa errespetatu beharraren ikuspuntuari buruzko hausnarketa egitea eta ikuspuntu hori lanbideko jardueretan txertatzea, lanbideko kode etikoarekin edo lanbideko jardunbide kodearekin batera. Datuak Babesteko Euskal Bulegoak sustatzailea eta erreferentziazko erakunde espezializatua izan nahi du esparru horretan. Hori dela eta, aukera honetaz baliatu nahi dut erakunde eta lanbide elkarteei esateko langintza honetan segi dezatela eta, bide batez, gure lankidetzak eskaintzeko.

Eta asmo hori duelako hasi behar du DBEBk ikasketa plan akademikoak aztertzen, informazio pertsonalaren kudeaketarekin eta datu pertsonalen babesarekin lotutako gaiak txertatzeko proposamena egiteko hainbat curriculumetan, bereziki, jakintza horietatik eratortzen diren lanbide-jardueren izaera kontuan hartuta, pertsonen duintasunari kalterik handiena egin diezazkiekeenetatik edo premiazkoa ez den kontrol soziala onartzea ekar dezaketenetatik hasita.


Antzeko beste helburu bat erdietsi nahian, Kontua: zeuk erabaki datua hezkuntza kanpaina egin dugu. Kanpainaren helburua da gazteak, haien bizitza pribatua nahiz besteena babesten jakinda, komunikazio baliabide elektronikoak erabiltzen gaitzea. Izan ere, bilatzaileak eta sare sozialak era masiboan erabiltzen dira, eta informazio pertsonala azkar eta modu masiboan eskuratzea eta tratatzea erraza da. Sare sozialekin lotutako zenbait jardunbide ekarri nahi ditut hona, uste dudalako ezinbestekoa dela horien gainean hausnartzea: batetik, datuen hedapena, batez ere beste pertsona batzuen argazkiena, baimenik gabe eta jabeek ezer jakin gabe zabaltzen direnean; eta bestetik, sare sozialen pribatutasun politikaren gainean dagoen informazio falta.

Aurkezpenaren hasieran aipatu ditut aurrerapen teknologikoen ondorioz pribatutasunak izan ditzakeen zenbait ondorio. Orain, berriz, azpimarratu nahi nuke abantaila ugari ere badakartzatela bai herritarrentzat bai administrazioen kudeaketarako. Hori hala delako, DBEBk ahalegin eskerga egin du giza eta diru baliabideen aldetik, Euskadiko Fitxategien Erregistrarako aplikazio berri bat egiteko. Fitxategiaren xedea da administrazio publikoetan dauden fitxategiak deklaratzeko —eta nahitaez deklaratu behar dira— baliabide elektronikoak ahalbideratzea. Berrikuntza teknologikoko prozesu hau 2009an bukatuko da.

Hasieran Bulegoan lan egiten duten pertsonen lan ona aipatu dut. Orain esan behar dut baieztapen hori abiapuntua baino ez dela; hain zuzen ere, aurrerabidea denon artean egiteko, 2009-2011 aldirako Plan Estrategikoa adostu dugu Bulegoan. Euskal administrazioek eta herritarrek dituzten beharrak izango ditu Planak ardatz, eta ikaskuntza eta guztion artean sortutako jakintza izango dira osagai nagusiak.

Iñaki Vicuña de Nicolás

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria



2. Zuzendaria berritzea

Lehendabiziko laur urteko agintaldia bukatzean, maiatzaren 6ko 81/2008 Dekretuaren bidez, eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 15. artikulua xedatzen duena betez, Gobernuak lehendakariordeak hala proposatuta eta aldez aurretik Gobernu Kontseiluak eztabaidatu eta onartuta, Iñaki Vicuña de Nicolás izendatu dute berriz lau urteko hurrengo agintaldirako. Izendapenak maiatzaren 14az geroztik ditu ondorioak.

Zuzendariak ilusio handiz ekin dio aro berri honi, eta bere helburuen artean Bulegoaren funtzionamendua finkatzea dagoenez, 2009-2013 aldirako Plan Estrategiko baten gidaritza hartu du bere gain.

3. Kontseilu Aholku-emailea

2/2004 Legearen 14. artikulua xedatzen duenez, Datuak Babesteko Kontseilu Aholku-emailea DBEBren zuzendariaren kide anitzeko aholkularitza organoa da.

3.1. *Kontseilu Aholku-emailearen osaera*

2008an honako hauek izan ziren Kontseilu Aholku-emailearen kideak:

- Eusko Legebiltzarraren ordezkaria, Legebiltzarreko mahaiak izendatua 2004ko abuztuaren 31ko bilkuran: Juan Luis Mázmela Etxebarria jauna, Informazio Sistemen zuzendaria.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari bat, Gobernu Kontseiluak izendatua 2004ko uztailaren 13ko bilkuran: José María Endemaño Arostegui jauna, Erakunde Politikarako eta Toki Administrazioarako zuzendaria.
- Lurralde historikoen ordezkari bat, Foru Aldundien arteko erabaki bidez izendatua: 2007az geroztik, Carlos Royuela Garrán jauna, LANTIK, SA.-ren zuzendari-kudeatzailea.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuko toki-erakundearen ordezkari bat, EUDEL-ek izendatua: 2007ko urriaren 23az geroztik Ricardo Ituarte Azpiaz jauna, Santurtziko alkatea.
- Informatikan aditu bat, Euskal Herriko Unibertsitatearen errektorearen 2004ko azaroaren 29ko Ebazpenaren bidez izendatua: Eduardo Jacob Taquet jauna, Ingeniaritza Telematikoko irakasle titularra.
- Oinarritzko Eskubideetan aditu bat, Euskal Herriko Unibertsitatearen errektorearen 2004ko azaroaren 29ko Ebazpenaren bidez izendatua: Iñaki Esparza Leibar jauna, Zuzenbide Prozesaleko irakasle titularra.

Otsailaren 29ra arte, Kontseilu Aholku-emailearen lehendakaria José María Endemaño Arostegui jauna izan zen eta, geroztik, Carlos Royuela Garrán jauna izan da.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren idazkari nagusia zen Simón Mesanza Legarda jauna aritu zen Kontseilu Aholku-emailearen idazkari lanetan.

3.2. *Kontseiluak egindako bilerak*

2008an hiru bilera egin ziren eta honako gaiak aztertu zituzten:

2008ko otsailaren 29ko bilera

- Lehendakari berria hautatzea
- Egoeraren txostena
- DBLO garatzen duen Erregelamendu berria onartzea. Berritasun aipagarrienak.
- Administrazio elektronikoarekin zerikusia duten txostenak
- Herritarrek datu babesari buruz duten pertzepzio sozialaren gaineko azterlanaren emaitzak

2008ko ekainaren 27ko bilera

- Egoeraren txostena.
- Plan Estrategikoa egitea.
- Toki erakundeetarako Jardunbide Egokien Eskuliburua.
- Hezkuntza arloko ikuskaritza sektorialaren behin-behineko txostena.

2008ko azaroaren 25eko bilera

- Egoeraren txostena.
- Plan Estrategikoan egindako aurrerapenak.
- Kontua: zeuk erabaki datua proiektuko materialak aztertzea

4. Plan Estrategikoa egitea

4.1. Zergatik plan estrategiko bat orain?

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak lau urte beteta zeuzkan. Esan behar da erakundearen lehendabiziko urte horietan lan eskerga egin behar izan genuela egiturak sortzen, giza taldeak eratzen, ingurune sozialarekin eta instituzionalarekin harremanak taxutzen, eta politikak, prozedurak eta jardunbideak egokitzen; azken finean, ahalegina egin behar baita elkarrekin lan egiten ikasteko, gure kasuan administrazio publikoekin eta herritarrekin eta haientzako lan eginez, bereziki, herritarrekin, horiek baitira gure azken helburua..

Hasierako garaia igaro ondoren, DBEBk bere burua prestatzeaz gain, hainbat egokitzapen ere egin beharra ikusi zuen, zerbitzu hobea eman nahi bazuen, batez ere:

- Zuzendaritza berritu delako beste lau urterako, eta horrek estrategia bat garatu ahal izateko egonkortasuna dakarrelako.
- DBEBk oinarritzko egitura finkatuta duelako.
- DBEBk baduelako bere eskumen esparruko interes taldeen berri, hau da, badakielako zein den bere lan esparruko errealitatea.
- Behar duen informazioa zehaztu behar duelako. Informazio hori eskuratu eta egituratuz gero, Bulegoak hobeto antolatu ahal izango ditu bertako jarduerak.
- Jakin egin behar duelako herritarrek zer espero duten haien pribatutasunarekiko eskubidea babesten duen erakunde publiko batengandik eta horri erantzuna eman behar diolako.
- Jakin egin behar duelako zer planteatzen duten euskal administrazio publikoek pertsonei buruzko informazioaren kudeaketaz eta horri erantzuna eman behar diolako.
- Barruko errealitatea (zer den) eta kanpoko (non jardun behar duen) ezagutu behar duelako, horren gainean hausnartu ahal izateko eta behar bezala planifikatu ahal izateko.
- Erakundeak dauzkan ahuleziak, indarguneak eta mehatxuak zeintzuk diren jakinez gero, hobeto finkatu ahal izango dituelako lehentasunak.
- Ezagupena eta hausnarketa abiapuntutzat hartuta eta lehentasunen arabera helburuak finkatuta, bere jarduera hobeto egiteko aukera izango duelako.
- Erakundearen lan egiteko era hobetu nahi dugulako.

4.2. Misioa

Herritarren pribatutasuna babesteko independentzia osoz jarduten duen euskal erakundea da, eta, horrela izan dadin, kontrolatzen dugu euskal erakunde publikoek datu babesari buruzko legea betez kudeatzen dutela herritarren gaineko informazioa.

Horretarako:

- herritarrei arlo honetan dauzkaten eskubideei buruzko **informazioa ematen die**, eta eskubide horiek betetzen ez badira, **babesa ere ematen die**
- administrazio publikoetan **ikuskapenak egiten ditu eta arau-hauste espedienteak ireki**
- datu pertsonalen tratamenduei publikotasuna ematen du, erregistroan inskribatuz
- datu pertsonalen babesaren tratamenduen arloan **jardunbide egokiak sustatzen eta zabaltzen ditu**, administrazio publikoetakoak **aldatuz joateko proiektuak bultzatuz**
- administrazio publikoei **aholkularitza ematen die**

4.3. *Ikuspena*

DBEBk irudikatzen duen gizartean

Herritarrek argi dute nola erabiltzen den haien gaineko informazio pertsonala, ondo ezagutzen dituzte arlo honetan dauzkaten eskubideak eta lasai eta seguru agertzen dira datuen erabilera dela eta.

- **euskal administrazio eta erakunde publikoenganako konfiantza** berez dator datu pertsonalak tratatzean zintzo, arduratsu eta seguru jokatzeko dutenean.
- pertsona guztien eskubideak (gardentasuna eta informazio publikoa eskuratu ahal izatea, politikan parte hartu ahal izatea, segurtasuna, informazioa, datu pertsonalen babesa eta abar) hartzen dira aintzat, egoera jakin bakoitzaren arabera neurtuz.
- Aurrerapen teknologikoen ezarpenak oinarrizko eskubideak errespetatzen ditu.

Hori lortzeko, DBEBk datu pertsonalen babesaren arloko erreferentziazko erakundea izan nahi du herritarrentzat eta euskal administrazio publikoentzat, eta gidari izan nahi du eskubide horren babesaren arloan eta pribatutasuna bezalako balore sozialaren eta ezagutza eremu berriaren zabalkundean.

4.4. *Balioak*

Hona hemen DBEBren balioak:

- Herritarrei zuzendua eta gertutasuna
- Beste administrazioekiko lankidetzat
- Bertako pertsonen garapena eta asebetetzea
- Konpromisoa kalitatearekin, etengabeko hobekuntzarekin eta berrikuntzarekin

4.5. *Interes taldeak*

DBEBren interes-taldeak dira Bulegoarekin harremana duten edo Bulegoarekin batera jarduten duten pertsonak, pertsona taldeak eta erakundeak. Bulegoak haien interesen berri izan behar du eta, hori jakinda, hobeto planifika ditzake bertako jarduerak.

Datu babesaren arloan interes talde horiekin batera egin behar du lan, talde horien esperientzia, sinesgarritasuna eta eraginaz baliatuz helburuak erdiesteko, sarritan helburu berberak izango dituztelarik:

- Egoki irizten diotenean, **kontsulta eginez**.
- **Bulegoaren itxaropenen berri emanez** (besteekin harremanak izateko prest egon behar du, besteek jakin dezaten zer eta nola egiten duen) **eta besteenez jabetuz**.

DBEBren interes-taldeak dira honako hauek:

1. La Gizartea eta herritarrak

- Gizarteak eskubidearen ezarpenean interesa duelako. Pribatutasuna balio sozial gisa sustatzen dugu.
- Gure jarduera herritarrak babesten ditu. Babesa.

2. Administrazioak, erakunde publikoak eta gure eskumenpean dauden beste entitateak.

- Administrazioek esparru sektorial jakinetan barne erregulaziorako gaitasuna duten erakundeak direlako (Osasuna, Hezkuntza, Ogasuna eta Gizarte Ongizatea),


- ✓ Datu pertsonalen babesaren esparrua babesten duten araudi sektorialak finkatuz,
- ✓ haien esparruan datu pertsonalen babesaren arloko berariazko araudiak ezarri
- **Zenbait administrazio bereziki kontuan hartuz**, honako arrazoiengatik:
 - ✓ kudeatzen dituzten datu pertsonalak bereziki babestu beharrekoak direlako (Osasuna...)
 - ✓ pertsona askoren datuak erabiltzen dituztelako (Hezkuntza, Osasuna, Ogasuna ...)
 - ✓ haien jardura gauzatzeko pertsona kolektibo zabalez baliatu behar direlako (Hezkuntza, Osasuna, Polizia, Gizarte Ongizatea ...)
- 3. **Bulegoak dauzkan aliatuak pribatutasunari buruzko arau, irizpide eta politikak finkatzeko: botere betearazlea, legegilea, judiziala eta bestelako zenbait erakunde espezializatu.**
 - Eusko Legebiltzarra eta batzar nagusiak. Araudiak ezartzen dituzte.
 - Eusko Jaurilaritza eta foru gobernuak. Politikak finkatzen dituzte.
 - Datuak babesteko estatuko, Europako eta nazioarteko agentziak (Europako eta nazioarteko konferentzien bidez). Irizpideak eta politikak finkatzen dituzte.
 - Arartekoa.
 - Justizia administrazioa.
 - Garrantzi bereziko erakunde hauek: Bideozaintzako Batzordea eta EUSTAT, beste batzuen artean.
- 4. **Zuzenbidearen sustapenaren eta aldaketa sozialaren esparruko aliatuak:**
 - Gizarteko erakunde batzuk (kontsumitzaileen elkarteak, ...)
 - Komunikabideak
 - Unibertsitateak eta Hezkuntza Saila
 - Administrazioak eta lanbide taldeak ordezkatzeko dituzten erakundeak (EUDEL, lanbide elkargoak ...)
 - Aldaketa, administrazioaren modernizazioa eta berrikuntza sustatzen duten zenbait erakunde (Administrazioa Eraberritzeko eta Administrazio Elektronikorako Idazkaritza Nagusia, Innobasque eta Euskalit).
- 5. **Administrazio publikoetako datu babesaren esparruko koordinatzaileak**
 - datu babesaren arloko koordinatzaileen sarea
 - Esparru publikoko datu babesaren arloko beste eragile batzuk, informazio sistemak enkarguz kudeatzen dituztenak (EJIE, LANTIK, IZFE, Arabako Kalkulu Gunea A.B.,...)
- 6. **DBEBko pertsonak**
 - DBEBn lan egiten duten pertsonak

- DBEBren Kontseilu Aholku-emailea

7. Hornitzaileak

- Datu babesaren eta segurtasunaren arloko aholkularitzak
- Prestakuntzako edukiak eta eduki informatzaileak egiten dituzten hornitzaileak eta prestakuntza diseinatu eta inplantatzen duten enpresak.
- Beste hornitzaile batzuk.

4.6. Arrakastako faktore kritikoak



4.7. Arrakastako faktore kritikoak, jomugak estrategikoak eta helburuak

HERRITARRAK INFORMATZEA ETA PRESTATZEA

- Herritarrek badute haien eskubideen berri eta nola erabili
 - ✓ DBEBrekiko harremanak bideratu herritarrei
 - ✓ Hezkuntza sisteman pribatutasunaren irakaskuntza babestu
 - ✓ Herritarren pertzepzio soziala zein den jakin
 - ✓ Komunikabideekiko harremanak egituratu

ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN JARDUNBIDE EGOKIAK SUSTATU

- Euskal administrazio publikoek zintzo, arduratsu eta seguru jokatzeko datu pertsonalak tratatzen dituztenean
 - ✓ Administrazioen eta bertako langileen pertzeptzioa zein den jakin
 - ✓ Administrazio publikoek zenbateraino betetzen duten ebaluatu

- ✓ Administrazio publikoetan jardunbide egokiak sustatzea

EUSKADIN ETA EUSKADIKO DATU BABESAREN ARLOKO ERREFERENTEA IZATEA

- DBEB prestigidun erakundea izango da herritarrentzat eta euskal administrazio publikoentzat, eta arlo honetan lidergorako bokazio argia izango du
 - ✓ Finkatzea erakunde gisa EAEn dugun tokia (Administrazio publikoetan jardunbide egokiak bideratzeko faktorearekin lotuta)
 - ✓ Finkatzea EAEn gizartearekiko dugun tokia (Komunikabideekiko Harremanak Egituratzeko eta Talde Sozialekin Harremanak definitzeko helburuekin lotuta)
 - ✓ Bulegoaren irudiari prestigioa ematea, objetibotasunean eta independentzian oinarrituta
- Estatuko gainontzeko bulegoek eta Europako agintaritza garrantzitsuenek Datuak Babesteko Euskal Bulegoa aintzatetsiko dute eta aintzat hartuko dute
 - ✓ Bulegoaren estatusa sendotzea estatuan eta nazioartean

DATU PERTSONALAK BABESTEAREN ESPARRUAN EZAGUTZA SORTU ETA KUDEATZEA

- DBEB datu pertsonalak babestearen arloko ezagutza bildu, sortu eta hedatzeko esparruko eragile nagusia da
 - ✓ Ezagutza sistema eta barruko hedapena finkatzea ("Pertsonen gaikuntzarekin" du zerikusia)
 - ✓ Zenbait esparruri buruzko ezagutza aditua sustatzea
 - ✓ Kanporako hedapen sistema bat finkatzea
- DBEB datu babesaren esparruko ezagutzaren erreferentziazko eragilea da

KUDEAKETAN BERRIKUNTZAK EGITEA ZERBITZUA MODU ERAGINKORREAN EMATEKO

- Barruko kudeaketa finkatua, egituratua eta dokumentatua
 - ✓ Jakin eta neurtu zer egiten dugun eta nola egiten dugun, administrazio publikoek eta herritarrek gure jardueraz duten pertzepzioa eta administrazio publikoek eta herritarrek guren zerbitzuaren kalitateaz duten pertzepzioa
 - ✓ Prozesukako kudeaketa sistema bat ezartzea pixkanaka eta administrazio publikoek eta herritarrek gure jardueraz duten pertzepzioa hobetzea ("Herritarrei DBEBrekiko harremanak bideratzearekin" du zerikusia)
- Kanpoko aintzatespena-ziurtapena
 - ✓ Planifikazio estrategikoa sendotzea
- Beharrezko tresna lagungarriak inplementatzea
 - ✓ Ahalik eta baliabide materialik eta teknologia informatikorik aurreratuena izatea, zerbitzurik onena eman ahal izateko eta herritarrekin berak aukeratzen duen moduan izateko harremanak

ERAKUNDEKO	PERTSONAK	SUSTATZEA	ERAKUNDEKO	ELEMENTU
GARRANTZITSUENEN LEZ				

- DBEBko kideak pozik daude, garapenean eta antolamenduaren “kulturarekin” engaiatuak
 - ✓ Pertsonen politika finkatzea eta hautaketa eta hornidura sistemak eta egiturak eguneratzea

4.8. 2009ko Kudeaketa Plana

Arrakastako faktore kritikoak eta helburuak zehaztu ostean, 2009rako Kudeaketa Plana finkatu zen. Planak 80tik gora ekintza ditu.

5. Legebiltzarreko agerpena

Talde sozialistak hala eskatu zuelako, azaroaren 27an DBEBren zuzendariak agerraldi bat egin zuen Legebiltzarreko Erakunde eta Herrizaingo Batzordean, eta legebiltzarkideek honako gaiei buruz egindako galderei erantzun zien:

- DBEBk burutu beharreko jarduerak Gipuzkoako Foru Aldundian gertatu zen ondare-datuen filtrazioa dela eta.
- Herrizaingo Sailak adierazitakoa udaltzaingoetako efektiboak eta adin-piramideak eskatuz jasotako informazio eskaera bat dela eta.
- Datu pertsonalen babesaren arloko beste gai batzuk eta Bulegoaren bestelako jardura batzuk.

6. Aholkularitza eginkizuna

6.1. Irizpenak

Egiten dizkiguten kontsultei idatziz erantzuten diegu, hala egin behar dela xedatzen baitu 2/2004 Legearen 17.1. n) artikulua. Bestalde, kontsultei erantzutea aholkularitza eginkizun bat denez, erabaki dugu erantzun horiei irizpen deitzea. Administrazioei eta pertsona pribatuei, fisikoei nahiz juridikoei, eskaintzen dizkiegu irizpenak, baldin eta datu pertsonalen babesaren arloko gai jakinei buruzko zalantzak badituzte.

Hona hemen aholkularitza eginkizunaren ezaugarriak:

- Irizpen eskaerak datu pertsonalen babesarekin lotutako gaiei buruzkoak izan behar dira, eta, bereziki, 2/2004 legearen 2.1 artikuluko erakundeek edo administrazio publikoek sortu edo kudeatutako fitxategiei buruzkoak.
- Eta planteatzen den gaiak zehatza izan behar du, hau da, zalantzazko portaerak zehatz azaldu behar dira, eta berdin egin beharko da kasu jakin batean ezarri nahi den xedapen zehatzak direnean.

2008an erantzun genituen kontsulten artean 2007an egindako hamar kontsulta zeuden. Horietaz gain, berrogeita lau kontsulta berri jaso ditugu aurten. Horietako hogeita hamahiruri irizpenen bidez erantzun diegu, bati karta bidez, beste bati posta elektronikoko bidez eta gainontzeko bederatziei 2009an erantzungo diegu.

2008an Bulegoak argi ikusi zuen badaudela zenbait gai, betikoak direnak, kontsulta-egileentzat bereziki kezkarriak direnak. Oinarrizko eskubidearen funtsezko edukari zuzenean eragiten dioten gaiak izan ohi dira.

Hori dela eta, ahalegindu gara gai horien kasuan jarraitu beharreko lerro nagusia finkatzen, eta ahalik eta zorrotzen eta segurtasun juridiko handienarekin erantzuten bai herritarrei bai administrazioei.

Atal honetan azpimarratu nahi dugu, garrantzi handia izan dutelako, zein izan den gure iritzia datu pertsonalen tratamendu kasu batzuetan.

Zerga-datuen komunikazioa. Zerga-datuak atzitzeko eskubidea.

Foru ogasunek egindako kontsulta bat jaso genuen eta galdetzen ziguten ea bazegoen tokiko ogasunei datuak komunikatzetik, betearazpen-bidean zeuden zergak behar bezala bildu ahal izateko. DBEBk pentsatu du, zerga arloko araudiaren arabera, komunikazio hori egin daitekeela, baina zerga arloko tokiko administrazioei bakarrik egin ahal zaiela komunikazioa eta ezin zaiela inondik inora egin administrazio horiek derrigorrezko diru-bilketako zerbitzuetarako kontratatuta dauzkaten enpresei. Izan ere, zerga arloko tokiko administrazioek tratamendua enkargatzeko kontratu bat izenpetu beharko dute enpresa horiekin, diru-bilketa eginkizunetarako.

Kontsulta horretan bertan DBEBk adierazi zuen udalek ezin zituztela atzitu oinordetzen eta dohaintzen ondorioz foru ogasunean aurkeztutako eskritura publikoak, horrelako atzipenak ez direlako datu babesari buruzko araudiaren arabera.

Foru ogasun batek galdetu zuen ea norainoko helmena zuen pertsonen haien zerga-datuak atzitzeko duten eskubideak. DBEBk adierazi zuen eskubide horrek ez duela esan nahi pertsonen eskubidea dutenik jakiteko ea zein funtzionario izan diren haien zerga-datuak atzitu eta tratatu dituztenak.

Bitarteko elektronikoak, informatikoak eta telematikoak.

2008ko ekitaldian DBEBk arreta berezia jarri du gai horretan, batez ere ondoko bi proiektuak direla-eta egin zizkiguten galderei erantzuteko irizpenetara jotzen badugu:

- Bezeroen kudeatzaile bat sortzea Euskadiko Administrazio Orokorrek Hiritarrei Arreta emateko Zuzenean Zerbitzuarentzat eta Eusko Jaurlaritzaren eta EUDElen arteko esparru hitzarmena, administrazio elektronikoa hedatzeko.
- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzeko Dekretuaren proiektua.

Lehendabiziko proiektua dela eta, DBEBk adierazi zuen bezeroen kudeatzailea sortzea datu pertsonalen fitxategi bat sortzea zela, eta kudeatzaile hori herritarrei arreta emateko zerbitzua eraginkorra izateko "tresna" bat dela.

Fitxategi hori sortzeko, lehendabiziko fasean EUSTATEk emandako biztanleriaren erregistroko datuak erabili beharko dira: herritarraren izena, abizenak, helbidea, sexua eta jaiotze-data. Berez, aurreko kontsulta batzuetan adierazitakoa kontuan hartzen badugu, hori egitea bat dator datu pertsonalak babestearen arloko araudiarekin.

Aurrera begira, proiektuak aurreikusten zuen interesdunen adostasuna beharko zuela herritarren datu pertsonalak sartu nahi bazituen zerbitzua emateko erabili behar zuen fitxategian. Hori egitea, berez, zilegi da datu babesaren ikuspuntutik.

Azkenik, DBEBk, tratamendu-kontrolatzailearen figuraren interpretazio finalista bat eginez, adierazi zuen ez zegoela eragozpenik proiektuaren ardura duen organoa datu-prozesatzailatzat jotzeko, hau da, herritarrak, interesdunak diren espedienteak direla-eta, eskatzen duten informazioen datu-prozesatzailatzat jotzeko.

Bestalde, DBEBk adierazi zuen Administrazio Orokorreko organoek errolda egiaztagiririk eskatu behar ez izateko erroldako datuak balioztatzeko zerbitzu bat sortzeko proiektua ez zela bat etorriko datu babesaren arloko araudiarekin, planteatuta zegoen moduan egiten bazen (EUSTATEko datu basearekin erkatuta). Bestalde, adierazi zuen zerbitzu hori ezin zela alderatu Estatuko Administrazio Orokorreko eta Administrazio Orokorrearekin lotutako edo haren menpeko erakundeetako administrazio prozeduretan bizilekua eta egoitza frogatzeko udal erroldako ziurtagiria nahitaez aurkezteko obligazioa bertan behera uzten duen apirilaren 28ko 523/2006 Errege Dekretuak aurreikusitakoarekin eta Datuak egiaztatze sistemaren konfigurazioa, ezaugarriak, betekizunak eta bertan sartzeko prozedurak ezartzen dituen 2006ko abenduaren 27ko Aginduak ezarritakoarekin.

Bigarren proiektua dela eta, DBEBk Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen zuen Dekretuaren proiektuaren aldeko irizpena eman zuen.

Hala ere, Bulegoak iritzi zion bereziki aztertu behar ziren hiru gai zeudela:

- Ea horrelako aldizkariak datu-fitxategiak diren, hau da, DBLOn xedatzen diren datu pertsonalen fitxategien ezaugarriak ote dituzten.
- Ea argitalpen elektronikoak jendearen eskurako iturritzat jo daitezkeen.
- Ea aldizkarietan agertzen diren datu pertsonalen kasuan, atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak erabil ote daitezkeen.

Lehenengo gaia dela eta, DBEBk honako ondorioa atera zuen: aldizkari ofizialek ez dituztela "fitxategi" izateko bete behar diren baldintzak betetzen, ez behitatzat, DBLOk eskatzen dituen baldintzak. Beraz, aldizkariak ez dira "datu pertsonalei buruzko informazio-multzo egituratuak" eta nahiz eta aldizkariak formatu digitalean argitaratu, horrek ez du esan nahi fitxategi izateko baldintzak betetzen dituztenik.

Bigarren gaiari dagokionez, Bulegoak adierazi zuen argi utzi behar dela erakunde eskumendunaren egoitza elektronikoetan argitaratzen diren aldizkari ofizialen argitalpen elektronikoek paperezko argitalpenek dituzten ondorio berak dituztela, aldizkariak arautzen

dituzten arauak esleitzen dizkien baldintza eta berme guztiekin, bai eta izaera ofizialari eta autentikoari dagokionez ere. Era berean, jendearen eskurako iturritzat ere joko dira DBLOren 3. artikulua xedatutakoaren arabera.

Azenik, hirugarren gaiaren inguruan, Bulegoak adierazi zuen kontuan hartzen bada datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubidea datu babeserako oinarritzko eskubidearen funtsezko edukia dela, horrek esan nahi duela aldizkari ofizialen argitalpen digitalean dauden titularrek eskubideaz baliatzeko aukera izateaz gain, administrazioak erraztasunak jarri behar dituela hala izan dadin, nahiz eta erraztasun horiek emateko, eskubideaz baliatzeko egokitzapenak edo moldaketak egin behar izan, aldizkari ofizialaren ezaugarriak direla eta.

Bideo zaintzako tresnak jartzea eguneko zentroetan.

Teknologia berriak edonoren esku daudenez eta teknologia horien ezarpenaren kostua txikia denez, tresna teknologiko aurreratuak indarrez agertzen dira gure eguneroko bizitzan.

Zentzu horretan, bideo zaintzak aipamen berezia merezi du, herritarrek eta euskal administrazio publikoek dauzkaten zalantza gehienak bideo zaintzaren ingurukoak direlako.

Bulegoak bere irizpidea jasotzen duen irizpen esanguratsu bat da laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentroetan horrelako gailuak jartzearen legezkotasunari buruz (CN08-012) egin zuena Bizkaiko Foru Aldundiak eskatuta.

Argi utzita pertsonen irudiak pertsonen datu pertsonalak direla eta irudi horiek grabatzea datu-tratamendua dela, gogora ekarri behar dugu Konstituzio Auzitegiaren doktrina (207/1996 Epaia), lortu behar den helburuaren eta datu-tratamenduaren artean egon behar den proportzionaltasunaren printzipioari buruzkoa. Printzipio hori bete beharrekoa da, batez ere, hau bezalako kasuetan, hau da, erabiltzen den datu-tratamenduak (irudiak grabatzea) aurrez aurre egiten duenean talka eskubidearekin. Epaia horrek xedatu du oinarritzko eskubide bat murrizten duen neurri batek proportzionaltasunaren printzipioa hausten duela egiaztatzeko, ondoko hiru eskakizun edo baldintzak betetzen diren ala ez ikusi behar dela: “neurri horrekin helburua lortuko ote den (egokitasun irizpena); neurri hori ezinbestekoa ote den eta egiatan ez ote dagoen helburu bera lortzeko beste neurri moderatuagoren bat (premiazkotasunaren irizpena); eta, azkenik, neurritzkoa eta orekatua ote den, interes orokorrari onurak eta abantailak ekarriko dizkiolako, eta abantailak gehiago izango direlako gatazkan dauden beste ondasun edo baloreei ekar diezazkiokeen kalteak baino (proportzionaltasun irizpena zentzu hertsian).

Beraz, kontuan hartzen baditugu, batetik, jurisprudentzia, bigarrenik, arlo horretan ezargarriak diren den araudi sektorialeko preskripzioak eta, hirugarrenik, une hartan indarrean zegoen Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legeak jasotzen zuen pertsona erabiltzaileen intimitaterako eskubidea (6. artikulua) edo zerbitzu horiek informatu behar duten autonomia printzipioa (5. artikulua), Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ulertzen du eguneko zentroetan irudiak grabatzeak ez duela urratzen legez eskatzen den proportzionaltasun irizpena.

Kontsumoaren datuak lagatzea Uraren Euskal Agentziari.

Bulegoan jasotzen ditugun kontsulta gehienak datu-lagatzaren ingurukoak izan ohi dira. Hasiera batean gauza normaltzat jo daiteke, kontuan hartzen badugu, batetik, lege-ordenamenduak arau-hauste larritzat jotzen dituela legea bete gabe egiten diren datu-lagatzeak; eta, bestetik, datu-lagatzaileak sarritan uste duela datuak eskatzen dizkion lagatzaileak datuak biltzeko eskumena duela. Dirutan zigor handia jasotzeko beldur direnez, gas, ur edo elektrizitate hornitzaileek ez dute daturik laga nahi.

Uraren Euskal Agentzia dela eta, entitate hornitzaileak ez zekien legez ezarritako kanonaren ordainketei buruzko datuak laga ahal zizkionik Uraren Euskal Agentziari. Araudi sektoriala aztertu ondoren, ikusi da lagapena legearen arabera zela, Uraren ekainaren 23ko Eusko

Legebiltzarraren Legeak ezarritakoa kontuan hartuta. 1/2006 Legearen 52. artikulua aurreikusten zuen entitate hornitzaileek datuak laga ahal zizkiotela Uraren Euskal Agentziari. Beraz, lege hori Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoaren 11.2 a) artikuluan jasotako adostasunaren salbuespena da.

Matrikulaziorako datu bilketa ikastetxe batean.

Administrazio publikoek, euren eginkizunak bete nahi badituzte, nahitaez bildu behar dituzte datu pertsonalak. Baina, datu pertsonalak biltzeko premia datuen kalitatearen printzipioarekin uztartu behar da. Datuen kalitatearen printzipioaren arabera, datuak egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak izan behar dira helburuarekiko, eta, beraz, gehiegizko datu bilketa jardunbide desegokitzat jotzen da.

Kontsulta batean (CN08-002), lanbide heziketako ikastetxe bateko matrikula orrietan eskatzen zituzten datuak aztertu ditugu; izan ere matrikula orrian gurasoen lanbideak, ikasketa maila edo egoera zibila eskatzen baitzituzten.

Kasu bi horiek aztertzean, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak Haurren Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 1/08 Laneko Dokumentua izan zuen kontuan. Dokumentua 29. artikuluko Lan Taldeak egindakoa da (Lan Talde horretan daude bilduta estatu kideen datu babesari buruzko araudia berrikusteko ardura duten Europako Agintaritzak). Dokumentuaren arabera, "ez dira datu gehiegi eskatu behar: adibidez, beti ez dira beharrezkoak izango gurasoen titulu akademikoak, lanbidea edo lan egoera. Tratamendu kontrolatzaileek ondo aztertu beharko dute ea benetan beharrezkoak diren. Kontu handiz jokatu behar da, horrelako informazioek diskriminazioa eragin dezaketelako".

Filosofia hori lege ordenamenduan txertatu zuen abenduaren 13ko Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 13.2 artikulua. Arau horren arabera, inoiz ere ezin izango zaio adin gabekoari familiako gainerako kideei buruzko informazioa lortzea ahalbidetuko duen daturik eskatu, edo familiaren ezaugarriei buruzko daturik eskatu, esate baterako gurasoen jarduera ekonomikoari buruzko datuak, informazio ekonomikoa, datu soziologikoak edo beste edozein, baldin eta datu horien titularrek horretarako baimenik eman ez badute. Dena den, aitaren, amaren edo tutorearen identitateari eta helbideari buruzko datuak eskuratzeko modua egongo da, baina soilik aurreko paragrafoan aurreikusten den baimena eskuratzeko.

6.2. Irizpenak

Atal honetan sartzen ditugu honako hauek:

Legea garatzeko xedapen orokorretako egitasmoei buruzko txostenak egitea, 2/2004 Legearen 17.1. h) artikulua xedatzen duenaren arabera.

Derrigorrez erantzun beharreko estatistikak finkatzen dituzten lege-xedapenei buruzko txostenak, 2/2004 legearen 17.1. l) artikuluan eta DBEBren Estatutuak onartzen dituen urriaren 5eko 309/2005 Dekretuaren 5 a) artikuluan xedatzen denaren arabera, eta

Bestelako lege-xedapenen gaineko txostenak egitea, baldin eta horien edukiak datu pertsonalen babesarekin zerikusia badute oro har.

2008an honako arau proiektuen gaineko txostenak egin genituen:

- 2009-2012 Aldirako Euskal Estatistika Planari buruzko Legearen proiektua.
- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzeko Dekretuaren proiektua.
- Etxebizitza eta Gizarte Gaiak Saileko Datu Pertsonalen Fitxategiak arautzen dituen Agindua aldatzen duen Aginduaren proiektua.

6.3. *Aholkularitza bilerak, posta elektronikoz eta telefono bidez nahiz bertatik bertara egindako kontsultei erantzutea*

Gure jarduerari eman nahi izan diogun izaera proaktiboa kontuan hartuta, hainbat bilera egin ditugu Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait administrazioekin, eta bilera horietan hainbat gairi buruzko aholkularitza eman diegu, esate baterako, obligazio formalak betetzeari buruzkoak eta administrazio horien eskumen esparruko programa berriei ekiteko —datu babesaren arloko araudia betez— zer-nolako jarduerak burutu behar dituzten jakiteko eta abar.

Beste alde batetik, eta nahiz eta oraindik ez dugun behar bezala egituraturako informazio zerbitzurik, egunero telefono bidezko kontsulta ugari izaten dugu eta berehala erantzuten ahalegintzen gara. Era berean, 2008an posta elektronikoz egin dizkiguten 79 kontsulta erantzun ditugu, horietatik 54 pertsona partikularrenak izan dira, eta gainontzeko 25ak euskal administrazio eta erakunde publikoenak.

7. Kontrol eginkizuna

7.1. Babes prozedurak

Espediente hauek Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 9.2 artikuluan jasotako babes eskubidearen ondorio dira. Babes espedienteek esan nahi dute erreklamazioa egiten dutenei lehendik ukatu dietela, osorik edo zati batean, datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko edo aurka egiteko eskubidea.

2008an DBEBk 19 babes espediente ebatzi genituen (horietako 8 2007an hasitakoak izan ziren). Bestalde, 5 erreklamazio ebatzi gabe geratu ziren, izapidetze fasean zeudelako. Horretaz gain, 3 babes erreklamazio bidali genituen AEPDra, bere eskumenekoak izateagatik.

Nabaritzen da herritarrek gero eta hobeto dakitela noiz, nola eta zein baldintzekin erabil ditzaketen Administrazio Publikoen aurrean atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak. Era berean, administrazioek ere gero eta kultura handiagoa erakusten dute herritarrei eskubide horiez baliatzen uzteko orduan.

DBEBk antzeman du badagoela gai bat pertsonentzat bereziki kezkarria dena, eta da norbere historia klinikoa atzitzeko eskubidea. Babes erreklamazio gehienak hortik etorri dira. Gehienetan atzipena onartu egin da, baina legez ezarritako epetik kanpo, babes espedientea izapidetzen hasita egoteagatik. Horrek erreklamazioaren onespina ekarri du.

7.2. Salaketak

Pertsona fisikoek edo juridikoek aurkeztutako erreklamazioak dira, datu pertsonalen babesaren arloko araudia urratuz egiten diren jarduerak direla-eta. Beraz, Legean zehaztutako ara-hausteak dira.

Salatzaileen iritziz, gehien kezkatzen dituen kontua da ez dakitela haien datu pertsonalak fitxategi batean jasoko dituztenik eta ez dakitela datu horiek laga edo erabil ditzaketenik haien adostasunik gabe edo lege babesik gabe.

2008an Datuak babesteko Euskal Bulegoak hogeita hamahiru salaketa jaso zituen, eta horietatik 15 ebatzi gabe daude 2009an. Era berean, 2007ko bederatzi salaketa ebatzi zituen. Aurten ebatzitako salaketetatik hamabi artxibatu egin dira eta bederatzirekin arau-hauste prozedurak ireki dira.

7.3. Administrazio publikoen arau-hauste prozedurak

Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako espedienteak dira horiek, eta legearen aurkako jarduerarik egon den ala ez egiaztatzea dute helburu.

2008an hamabi arau-hauste prozedura ireki ditugu, eta horietatik sei bukatuta daude. Beste sei instrukzio fasean daude. Urtearen barruan aurreko urtean hasitako bost arau-hauste prozedura ebatzi dira.

Gaiak aztertzen baditugu, arau-hauste larri bat gertatu da adin txikikoen datuak direla eta. Beste 7 arau-hauste arin ere egon dira: babes ofizialeko etxebizitzaren onuradunen datuak behar den bezala ez tratatzeagatik, zerga-datuak zabaltzeagatik, sekretu gorde beharra ez betetzeagatik, fitxategiak behar bezala ez tratatzeagatik eta ikuskapen eginkizuna oztopatzeagatik.

Arau-hauste arinak sekretu gorde beharra ez betetzeagatik deklaratu dira, eta bat deklaratu da informatzeko betebeharra ez betetzeagatik bideokamera bitartez egindako datu bilketan.

7.4. *Zehapen prozeduretako espedienteak*

2008an zehapen espediente bakar bat ireki zen eta tratamendu-eragile zen enpresa bati ireki zitzaion.

8. Ikuskaritza sektoriala hezkuntza arloan

Hezkuntzako Ikuskapen Sektoriala zertan den azaltzeko txostena

Ikuskapena 2007an hasi zen eta 2008an izan zuen jarraipena. 2008an “Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarentzako Diagnostikoa eta Hasierako Zenbait Gomendio” izeneko txostena egin genuen. Diagnostikoaren txostena egiteko, funtsezkoak diren erabiltzaileei egindako elkarriketak hartu ziren kontuan.

Txostenaren ondorio nagusia da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ez duela datu babesari buruzko jarduera politikarik. Eta hori horrela dela argi erakusten dute honako gertakariak:

- Administrazio-erakunde zentralek ez dute barneratuta datu babesaren arloko politika bat behar dutenik, erakundeari bere osotasunean ezarri beharrekoa, ez eta hori erdiesteko gidaritza lanaren ardura bere gain hartu behar dutenik.
- Lurralde ordezkariak ez dute datu pertsonalen babesaren gaineko jarraibide argirik finkatuta, ez eta datu horiek behar bezala tratatzeko prozedurarik edo tresnarik ere.
- Ikastetxeek bertan informazio pertsonala kudeatzeko jarraibideak behar dituzte. Horretaz gain, hezkuntza esparruko jarraibideak ere behar dituzte, adin txikikoek haien eskubideen berri izan dezaten, haien pribatutasuna defenda dezaten eta besteenari begirunea sor diezaioten.

Txostenak Ekintza Plan bat egiteko zenbait jarraibide proposatzen ditu. Ekintza Plan hori Sailak garatzekoa da 2008an eta 2009an zehar. Jarraibide edo gomendioak lau multzotan pilatu dira, lehentasunaren arabera (epe laburrean gauzatu beharrekoak, epe ertainean ala epe luzean). Berehala bete beharreko neurrien egiaztapena egitean —2008an bukatu zen epea— ikusi zen planifikatutako jarduerak ez zirela behar bezala bete.

9. Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroa

9.1. Informazioaren iturburua.

Datu Babesaren Erregistroaren 2008ko jardura I. Eranskinean dago jasota. Bertan ikus daiteke fitxategien deklarazioen bilakaera nolakoa izan zen. Horretarako, hainbat taula jarri dira honako datuekin: Erregistroaren bilakaera historikoaren datuak, fitxategien mugimenduei buruzko datuak, erakunde deklaratzaileri buruzkoak eta deklaratu diren fitxategiei buruzkoak; azken horiek beste aldagai hauekin gurutzatuta: lurraldeari, administrazio mailari eta segurtasun mailari buruzko datuekin.


Datu guzti horiek Fitxategien Erregistroaren datu-basearen azterketan dute jatorria. Erregistroan DBEBn deklaraturako inskripzio guztiak daude, Erregistroan sortu zenetik gaur arte. Erregistroa 2004an sortu zen. Aurreko urteei buruzko datuak ere aipatzen dira, eta DBEBren Erregistro Orokorretik hartutako datuak dira. Kalkulu guztietarako hartu den erreferentziako data izan da fitxategiak Datuak Babesteko Erregistroan “inskribatzeko, aldatzeko eta/edo ezabatze” data.

Horretaz gain, www.avpd.es web guneak izandako bisiten berri ere ematen da, web gunea sortu zenetik —2005ean sortu zen— gaur arte. Horretarako informazioa ateratzeko, www.euskadi.net erakunde-atariko zerbitzarietan biltzen diren trafiko-datuen azterketa erabili da.

9.2. Inskripzio eskaerak.


2008an 1.459 mugimendu egon dira guztira Fitxategien Erregistroan (sortzeko, aldatzeko edo ezabatze inakripzioak).

1.459 mugimendu horien %54 fitxategi berriak sortu direlako egin diren inakripzioak izan dira (786 fitxategi berri). Aldaketak, ordea, 616 izan dira (%42) eta 57 ezabatze egon dira (%4). Horren arabera, saldo garbia da (inskripzioak ken ezabatzeak) 729 fitxategi berri gehitu direla Datua Babesteko Erregistroan.




Esandakoaren arabera, aurreko urteetako mugimenduekin alderatuz gero, 2008an mugimendu gutxiago egon dira, baina kontuan izatekoa da 2007an Erregistroak ohiz kanpoko mugimenduak izan zituela, aurreko urteekin alderatuz gero.

Eskuineko grafikoan sortze-inskripzioen urtez urteko bilakaera ikus daiteke eta urteroko mugimenduetatik ateratzen den fitxategien saldo garbia (sortze-inskripzioak ken ezabatze-inskripzioak).




Guztira dauden mugimenduen artean fitxategien ezabatzeak gutxi badira ere, esan behar da ezabatzeek ez dutela esan nahi ezabatutako fitxategiko datu pertsonalen tratamenduak bertan behera geratzen direnik. Gehienetan gertatzen dena da fitxategia eraldatu egiten dela eta aldi berean sortzen den beste fitxategi berri batean txeratzen dela.

2008ko mugimendu gehienak toki administrazioen (udalak eta horien menpeko erakundeak) eskaerak izan dira.



Guztira 1.040 mugimendu (%71), eta ikusi da finkatu egin dela 2007an hasi zen gorako joera DBEBk eta EUDELe, bereziki, toki administrazioari zuzenduta sustatu zituen kontzientzia jardueren ondorioz.

Batez beste 133 inskripzio izapidetu ziren hilean (kontuan hartuta, balioko 11 hil daudela), nahiz eta hilero kopuru desberdinak izan, grafikoan ikusten denez. Maiatzean eta ekainean desberdintasun handia ikusten da. Hori gertatu zen maiatzean mantentze-lan teknikoak egin zirelako. Nahiz eta maiatzean jakinarazitako xedapenak aztertu egin ziren, xedapen horien inskripzioa hilabetez atzeratu zen eta ekainean inskribatu ziren. Horregatik ikusten da ekainean batez bestekoa baino kopuru handiagoa.





9.3. Erakunde deklaratuak.

Datuak Babesteko Erregistroan 1.046 fitxategi-kontrolatzaile agertzen dira. Horietako gehienak (887, %85) administrazio organoak dira, %11 erakunde autonomiak dira (118) eta %4 "bestelako izaera juridikodunak" (40).

Fitxategi bakoitzaren deklarazioan zehatz agertzen da jasota zein den fitxategi-kontrolatzailea (zuzendaritza orokorren edo administrazio bestelako egitura zehatz baten arabera), baina komenigarritzat jo da horiek multzokatzea, erakunde deklaratuak nagusia kontuan hartuta, hau da, barruko egitura organikoa zehatza alde batera utzita. Beraz, erakundeak sailkatzeko, IFZ hartu da kontuan, desberdina dutelako, Eusko Jaurlaritzaren kasuan izan ezik, kasu horretan sail bakoitza erakunde deklaratuak nagusitza jo delako.


Gauzak horrela, 323 erakunde deklaratuak nagusi daude. 2007ko datuekin alderatuta, 24 erakunde deklaratuak nagusi gehiago daude. Horietatik 16 Bizkaiko Lurralde Historikokoak dira.



Udalei dagokienez, esan behar dugu 2008an ez dela jaso deklarazio batik Datuak Babesteko Erregistroan eta oraindik 61 udal daudela fitxategi bat bera ere erregularizatu gabe. 2007an 64 zeuden. Beraz, horrek esan nahi du %4,7 gutxiago daudela orain. Aipatutako 61 udal horien artean, badaude 21 bertako fitxategien gaineko xedapenen bat onartu zutenak bere garaian, baina hainbat arrazoi zirela medio, ez zituzten fitxategiak inskribatu Datuak Babesteko Espainiako Erregistro Nagusian, eta gerora ere ez dituzte fitxategiak erregularizatu DBEBn.

9.4. Inskribatutako fitxategi aktiboak 2008an

Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan 5.156 fitxategi daude inskribatuta eta aktiboan. Hurrengo grafikoan ikus daiteke bakoitzaren “antzinakotasuna” edo fitxategi horien banaketa denboran zehar, hau da, fitxategi bakoitza zein urtetan deklaratu zen ikus daiteke grafikoan. Grafikoaren arabera, aktibo dauden fitxategien %50 2004. urteaz geroztik deklaratu dituztela esan daiteke.



9.5. Inskribatutako fitxategien banaketa, erakundearen arabera

Eusko Jaurlaritzako sailek eta erakunde autonomiadunek 846 fitxategi dauzkate inskribatuta. Horrek esan nahi du 2007an baino 69 fitxategi gehiago inskribatu dituztela eta %8,9ko igoera egon dela aurreko urtearekin alderatuz gero.

Foru administrazioen atalean 12 fitxategi gehiago daude, hau da, igo egin da kopurua (%4,2) eta orain guztira 301 fitxategi daude inskribatuta.

Udal guztiak kontuan hartuta esan behar da 2008an mugimendu gehien egin dituzten erakundeak direla. Denetara, 541 fitxategi gehiago inskribatu dituzte. Beraz, 2007arekin alderatuta, %17,2 igo da portzentajea. Bizkaiko udalak izan dira gehien nabarmendu direnak, bai egindako ekarpenengatik bai urteko igoera tasagatik, %30,4ko igoera izan baitute.

Bestalde, aipatzekoa da “udalaz gaindiko erakundeek” (gehienetan mankomunitateak eta partzuergoak izaten dira) deklaraturako fitxategi kopuruak izan duen igoera; izan ere, lehen 119 fitxategi baino ez ziren eta orain 170 dira. Beraz, igoera %42,9koa izan da.

“Beste erakunde batzuk” egindako inskripzioen kasuan ere igoera egon da (lehen 57 ziren eta orain 113 dira; beraz, %98,2ko igoera egon da). Inskripzioen artean aipagarrienak dira zenbait merkataritza ganbarek, elkargo ofizial batzuek eta Euskal Herriko Unibertsitateak egindakoak.


9.6. Inskribatutako fitxategien segurtasun mailak

Kontuan hartzen badugu inskribatutako fitxategi kopurua eta horietatik zenbatek duten esleituta segurtasun maila, nabarmen gertatzen da zein den zenbait erakundek datu babesari ematen dioten garrantzia. Izan ere, 2008an 863 fitxategi zeunden segurtasun mailarik esleitu gabe, eta horrek esan nahi du fitxategi horiek ez direla eguneratu lehen aldiz deklaratu zituztenetik, 2001a

baino lehen. Hala ere, horrelako fitxategiak %6,5 gutxitu dira aurreko urtearekin alderatuz (60 fitxategi gutxiago). 2007an 923 fitxategi zeuden segurtasun mailarik esleitu gabe.

Grafikoan ikus daiteke zein den inskribatuta dauden fitxategien segurtasun maila eta noiz inskribatu zen lehen aldiz fitxategia.

Grafikoan argi ikusten da lehen aipatu dugun bilakaera; izan ere, 2001a baino lehen deklaratu ziren fitxategien artetik, gero eta gutxiago daude segurtasun maila deklaratu gabe, eta hori gertatu da fitxategi horiek aldatzeko jakinarazpenak jaso direlako Erregistroan.



10. Euskadin datu pertsonalen babesaren gainean dagoen pertzepzio sozialari buruzko txostenak eta azterketak

10.1. *Pribatutasunerako eskubideari buruz eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren existentziari buruz herritarrek duten pertzepzio sozialari buruzko inkesta kuantitatibo bat egitea.*

DBEBk, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin lankidetzan, pribatutasunerako eskubideari buruzko eta datu pertsonalen babesari buruzko herritarren pertzepzio sozialaren gaineko azterketa kualitatibo bat egin zuen 2007an. Azterketa horren ondorio garrantzitsuenak 2007ko Oroitidazkian daude jasota. 2008an ere bi erakundeak elkarlanean aritu ziren gai berari buruzko azterketa kuantitatibo bat egiteko, hau da, euskal herritarren datu pertsonalen babesaren gaineko pertzepzio soziala aztertzeke. Azterketak aukera ematen zuen emaitzak aldagai pertsonal batzuen arabera aztertzeke, adibidez, inkesta egin zutenen adinaren aldagaiaren arabera (adin tarteak: 18-29, 30-45, 46-64, ≥ 65), sexuaren aldagaiaren arabera, aldagai sozialen arabera (adibidez, Internet eta beste IKT batzuen erabilera) eta egoitzako lurraldearen aldagai demografikoaren arabera.

Hona hemen ondorioak aipagarrienak:

- Berez gai honek ez du kezkarik eragiten, baina pribatutasunak izan ditzakeen arriskuez ohartu ahala kezka handitu egiten da. Herritarrek erakusten duten kezka maila (herritarren %37 baino ez da agertzen haien datu pertsonalen erabileraz nahiko eta oso kezkatuta) Europako Batasuneko herritarrena baino baxuagoa da (%64).
- Enpresa pribatuak egiten dituzten datu tratamenduengan baino konfiantza handiagoa agertzen dute Administrazio Publikoek egiten dituztenengan. Europarren batez bestekoak baino konfiantza handiago agertzen dute administrazioengan.
- Identifikazio orokorreko datu pertsonalak emateko orduan beldur txikiagoa (%57) agertzen dute, datu ideologikoak (%37), osasuneko datuak (%27) edo zerga arlokoak (%6) emateko baino.
- Internet edo posta elektronikoa erabiltzen dutenen %75ek diote datu pertsonalak babesteko tresna informatikoak erabili ohi dituztela (pasahitzak, spamen aurkako programak edo espioien aurkakoak).
- Herritarren %73k eskatu ez duen publizitate pertsonalizatua jaso du postaz eta %68k telefonoz edo SMS bidez ere jaso du horrelako publizitatea.
- EAEko herritarren %55ek badaki badagoela legeren bat datu pertsonalen intimitatea babestu eta bermatzen duena.
- Herritarren %26k ba omen daki Datuak Babesteko Euskal Bulegoa dagoela.
- Herritarrek zer dakiten pribatutasunarekin zerikusia duten eskubideei buruz: datuak zuzentzeko eta eguneratzeko eskubidea, datuak zuzenak ez badira (%61); jaso zirenean zegoen helbururako beharrezkoak ez badira, datuak ezerezteko eskatzeko eskubidea (%48); atzipen eskubidea, hau da, erakunde publikoei nahiz pribatuei norberari buruzko zein datu dituzten galdetzeko eskubidea (%39) eta erabilera okerrean batek kalteren bat eraginez gero, kalte-ordaina eskatzeko eskubidea (%32).
- Espainiarekiko datuekin alderatuta, datu babesaren pertzepzio sozialaren gainean dituzten antzekotasunak eta desberdintasunak. Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, Espainian adierazten dutenaren antzeko konfiantza maila dago. Telefono mugikorrez edo

finkoz jasotzen duten publizitate pertsonalizatuaren portzentajea ere antzekoa da. Desberdintasun aipagarriena da populazioak agertzen duen kezka, hemengo herritarrenarekin alderatuta, Estatukoena askoz handiagoa delako. Oraindik azkarregi da desberdintasun hori zergatik dagoen azaltzen duen hipotesiren bat emateko eta uste dugu gai hori hurrengo azterlanetan aztertu beharrekoa dela.

10.2. Datu pertsonalen babesaren arloan administrazio publikoek nola jarduten duten aztertzeko inkestak prestatzeko aurre lana.

2008ko bukaera aldera DBEB, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin lankidetzan, fitxategi-kontrolatzaileei eta administrazioetan datu pertsonalekin lan egiten duten langileei zuzendutako inkesta bati ekin zitzaion, eta besteak beste, nolako inkesta izango zen eta galde-sorten edukia finkatu ziren.

11. Pribatutasunaren kontzeptua eta DBEBren jarduerak zabaltzea herritarren artean eta administrazio publikoen artean

11.1. Pribatutasunari eta bulegoari buruzko zabalkunde materialak egitea

“Babestu zure datu pertsonalak” egutegia

2008ko 5.000 egutegi banatu ziren euskal administrazio publikoen artean “Babestu zeure datu pertsonalak” lemapean. Egutegian DBEBk lehendik erabilitako irudi grafiko bat eta DBEBrekin harremanetan jartzeko informazioa (helbidea, telefonoak eta web orria) agertzen ziren.



Bideoz zaindutako guneak seinaleztatzeko informazio txartela

Txartel elebidun bat diseinatu zen, euskal administrazio publikoek erabil zezaten, bideoz zaindutako guneak seinaleztatzeko.



11.2. *Datuak Babesteko Euskal Bulegoa komunikabideetan*

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak eta Bulegoko beste zenbait kidek; azken horiek maiztasun gutxiagorekin, telebistako eta irratiko saioetan eta hainbat egunkari eta aldizkaritako elkarrizketetan hartu zuten parte. Egiaztatu da komunikabideek DBEBri buruzko gero eta informazio gehiago eskatzen dutela, eta ematen du bi arrazoi hauengatik dela: alde batetik, datu babesarekin zerikusia duten hainbat gertakari gizartean duten oihartzunagatik (bideo zaintza, bilatzaileen bidez egiten diren datu berreskuratzeak, jazarpen digitala, adin txikikoak babestea Interneten eta abar), eta, beste aldetik, gure erakundea eta bere helburuak gero eta ezagunagoak izateagatik.

Zehatzago esanda, prentsa idatzian Bulegoarekin zerikusi zuzena zuten hogeiren bat berri argitaratu zituzten. Horretaz gain, datu babesari buruzko jarduerekin lotutako aipamen batzuk ere agertu ziren, batez ere Datu Babesaren Europako Eguneko jardueri buruzkoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeetarako Datu Pertsonalen Babesaren arloko Jardunbide Egokien Eskuliburuaren aurkezpena egiteko Jardunaldiko jardueri buruzkoa.

11.3. *Datu Babesaren Europako Eguna (2008ko urtarrilak 28)*

2008ko urtarrilaren 28an ospatu zen bigarren aldiz “Datu Babesaren Europako Eguna”. Europako Kontseiluak, Europako Batzordeak eta Europako Batasuna osatzen duten herrialdeetako datu babesaren arloko agintaritzak guztiek sustatzen dute egun hau.

Datu Babesaren Europako Egunaren helburua da Europako herritarren artean ezagutaraztea hain ezezaguna den baina haien bizitzako alor guztietan agertzen den gai honi buruzko eskubideak eta erantzukizunak.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak (DBEB) hainbat jarduera antolatu zituen ekimen horrekin bat eginez. Prentsaurreko batean eman zuen horien berri:

Datuen babesa eta euskal herritarren gaineko Azterlanaren emaitzak. Duela gutxi arte 2003ko Eurobarometroaren txostenaren emaitzak baino ez zeuden, eta txosten horren arabera, Europan datu babesaren arloan dagoen kontzientziak maila ez da altua, herritarren erdiek ez baitakite edo datuen babesarekin lotutako eskubideak daudenik, edo ez dira konturatu ere egiten. Horregatik, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak (DBEB) euskal herritarrek gai honetaz zein iritzi duten jakiteko azterlan bat enkargatu zuen hasteko. Azterlanaren emaitzak aurreko atalean daude azalduta.

Oinarrizko Hezkuntzako Euskal Curriculumean egindako hobekuntzak. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila elkarlanean aritu dira Oinarrizko Hezkuntzako Euskal Curriculumaren hobekuntzan, ekarpenak eginez nerabeen eta gazteen prestakuntza hobetzeko, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak eguneroko bizitzan erabil ditzaten ahalik eta arrisku gutxienarekin alor pribatuan.


Datuak Babesteko Euskal Bulegoak lortu behar den jarrera berri baten deskribapena proposatu zuen, datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidearekin zerikusia duena. Jarrera berri hau honela definitu daiteke: “norberari eta besteei buruzko informazioa bizitza pribaturako eskubidearekiko errespetuz tratatzea, bai eta kontu handiz tratatzea ere Internetek eta bitarteko elektronikoaren komunikazioak dauzkan arrisku potentzialak kontuan hartuta”.

11.4. www.avpd.es web orriaren erabilera

DBEBren atariak eta web orriak izan dituen bisitak

Ondoko grafikoetan ikus daiteke DBEBren www.avpd.es web orrian urtez urte egon diren mugimenduak, sortu zenetik (2005eko abuztuan sortu zen). Neurketaren datuak www.euskadi.net erakunde atariko zerbitzarietan biltzen diren trafiko-datuen azterketatik atera dira.

Web¹ orriaren jardueraren inguruan ondoko bi grafiko hauek aurkezten ditugu. Batean, web orriak izan dituen bisitak adierazten dira hiru hileka, eta bisita horiek zenbatzeko, bezeroaren nabigatzaileak onartutako *cookie*ak zenbatu dira. Bestean, web orriko guneek izandako bisitak adierazten dira hiru hileka, eta horretarako, zerbitzariak bidalitako orriak hartu dira kontuan.



Bietan ikus daiteke 2008ko azken hiru hilekoetan nabarmen igo zela bisita kopurua; izan ere, aurreko hiru hilekoetako batez bestekoa biderkatu egin zen eta biderketako faktorea bi baino handiagoa izan zen. Hain igoera handia azaltzen duten arrazoen artean honakoak dira aipagarrienak:

- DBLO garatzen duen 1720/2007 ED Erregelamendu berria indarrean sartu izana. Hain zuzen ere, hori dela-eta, hainbat material jarri baitira web gunean, eskuragarri.
- “Argia piztu da...” bideoren argitalpena. Bideoa langile publikoen prestakuntza jardueretarako eta sentsibilizaziorako da, eta berez eraginez, erabiltzeek bisita asko egin dituzte, batez ere Eusko Jaurlaritzakoek.
- Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeetarako Datu Pertsonalen Babesaren inguruko Jardunbide Egokien eskuliburua deskargatzeko egindako bisitak. Eskuliburua EUDELek argitaratu du, baina DBEBk ere parte hartu du eskuliburua egiteko langintzan.

1 www.euskadi.net atariak bertan izandako bisitak neurtzeko daukan moduak ez du uzten eskuratutako zifrak neurri erreal bezala erabiltzen, baina balio du denboran zehar izandako joera aztertzeko eta erkatzeko.

Web orria eguneratzea

Web orria hainbat aldiz eguneratu zen, eta eduki berriak ere sartu izan ziren. Hona hemen aipagarrienak:

- Administrazioak atalean (Toki administrazioa) Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeetarako Datu Pertsonalen babesaren arloko Jardunbide Egokien Eskuliburua argitaratu zen.
- Dokumentazio atalean (Estatuko legedia) abenduaren 13ko 15/1993 Lege Organikoa garatzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuari buruzko informazioa eta DBEBk egindako hainbat material argitaratu ziren.
- Gazteei buruzko eta pribatutasunari atal berezi baterako edukiak jartzeko atal berezi bat eta edukiak diseinatzen hasi ginen.

12. Datu pertsonalen babesa euskal hezkuntza sisteman

12.1. *KONTUA: ZEUK ERABAKI DATUA kanpaina prestatzeko lana*

“Kontua:...Zeuk erabaki datua” hezkuntza kanpainaren hasiera

Nerabeek maiz erabiltzen dituzte informazio eta komunikazio arloko baliabide elektronikoak, eta, seguruenik sektore hori da pribatutasunarekin eta duintasun pertsonalarekin zerikusia duten arriskuen aurrean —jazarpen digitala, informazio pertsonala sarearen bidez hedatzea baimenik gabe...— babesik eskasena duena. Horregatik, baliabideak eskaini behar zaizkie, haien arteko harremanetan komunikabide elektronikoak erabiltzean, norbere bizitza pribatua eta inorena nola babestu jakin dezaten eta horretaz hausnarketa egin dezaten.

DBEBak uste du begi bistakoa dela ikasleentzako hezkuntza proiektuak eraginkorrak izan behar badute, nahitaezkoa dela hezkuntza komunitateak proiektuak bere egitea eta eguneroko hezkuntza errutinan txertatzea. Horretaz gain, nerabeei zuzendutako hezkuntza proiektuak eraginkorrak izatea nahi bada, funtsean honakoak hatu behar dira kontuan: komunikazio-estilo hurbila erabiltzea, gazteek erabiltzen dutena bezalakoa; hezkuntza baliabide ugari erabiltzea (bideoak, horma-irudiak, paperean inprimatutako materialak, web-mikroguneak eta abar) eta hezkuntza-jarduera egokiak erabiltzea, hau da, hausnarketa egin eta taldeetan eztabaidatzea, esperimentazio praktikoa egitea eta ardurak norbere gain hartzea ahalbideratzen duten jardueraz baliatzea; alde batera utzi behar dira nola jokatu behar duten azaltzeko gomendioak eta aholkuak eman besterik egiten ez duten prestakuntza materialak.

Irizpide horietatik abiatuta, DBEBk erabaki zuen Norvegiako The Data Inspectorate erakundeak sortutako “Zeuk erabaki... Zure datu pertsonalak nola babestu: hainbat uste eta gertakari” hezkuntza kanpaina egokitzea. Helburua da datu babesaren gaiarekiko interesa sortzea. Kontua da irakasleek eta ikasleek gero eta gehiago jakitea informazio pertsonala babesteari buruz, hau da, norberari buruzkoa nahiz inorena babesteari buruz, batez ere informazio hori hainbat eratako baliabideetan erabiltzen dugunean, eta bereziki eremu digitalean erabiltzen dugunean.

Egokitu dugun hezkuntza proiektuaren izenburua honakoa da: “Kontua: Zeuk erabaki datua”. Kanpainaren pribatutasunari buruzko edukia eratzeko hainbat baliabide didaktiko erabili ziren. Baliabideetako bat liburuxka bat izan zen. Liburuxkak hiru atal ditu eta honakoak dira: (1) pertsona guztiok dugula anonimatuan egoteko eskubidea, (2) gazteek erantzukizun “editoriala” dutela eurei buruzko nahiz besteei buruzko informazioa argitaratzen dutenean Interneten, eta (3) gazteak gero eta zaintza handiagoaren pean dagoen gizarte baten partaide direla. Horretaz gain, 6 film labur —edo iraupen laburreko 6 bideo—, hiru horma-irudi eta web mikrogune bat ere baditu. www.kontuzdatos.com web guneak banakako ikaskuntzarako aukera ematen du eta materialak deskargatzea ahalbideratzen du.

DBEB eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila lankidetzan ari dira 2009an hezkuntza kanpaina horren zabalkundea egiteko komunikabideetan eta ikastetxeetan kanpaina ezartzen hasteko.

12.2. *CLI-Prometeo Proiektuko inkestak egitea*

CLI Prometeo proiektuan lankidetzan aritzea

- 2008an Datuak Babesteko Euskal Bulegoa CLI-Comisión de Libertades e Informática (Askatasunen eta Informatikaren Batzordea) erakundearekin lankidetzan aritu zen haur eta nerabeentzako proiektu bat aurrera eramaten. Proiektua haurrei eta nerabeei zuzenduta dago eta eskolatik abiatuta informazioaren teknologia berriak sustatzeaz gain, datu pertsonalen babesaren inguruko kontzientziazioa landu nahi du. Proiektuak Industria eta Hezkuntza Ministerioen laguntzaz gain, Andaluzia, Katalunia, Euskadi, Extremadura eta Madrilgo autonomia erkidegoetako hezkuntza sailen laguntza izan du, erkidego horietan egin baitituzte inkestak.

- Helburu horiek erdiesteko, proiektua bi fasetan antolatu eta burutu da. Lehenengo fasean azterketa kuantitatibo bat egin zen jakiteko Euskadiko, Kataluniako, Extremadurako eta Madrilko nerabeek nola erabiltzen dituzten informazioaren teknologiak (Internet, telefono mugikorra, ordenagailua, telebista eta abar) eta ea zer-nolako jarrera duten haien datu pertsonalak babestearen eta lagatzearen inguruan. Horretarako, lineako hainbat galde-sorta erabili ziren. Bigarren fasean, eta inkesten emaitzak ikusita, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak Erabiltzeko Eskuliburu Praktikoak egin ziren. Honako adin tarte hauetako bakoitzerako bat egin zen: 9-11 urte, 12-14 urte eta 15-17 urte bitartekoentzat. Eskuliburu horietan fikziozko hainbat pertsonaia eta horien bizipenak azaltzen dira. Telefono mugikorren, sare sozialen, Interneten ... eta horrelakoen erabileren inguruan gertatu ohi diren bizipenak dira, eta baliagarriak dira pribatutasunak izan ditzakeen arriskuak hobeto ulertzeko edo eskuliburuetan IKTak hobeto erabiltzeko ematen diren aholkuak erraz ulertzeko.
- Datuak Babesteko Euskal Bulegoak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak adostu dute inkestak zein ikastetxetan eta noiz egin eta nola helarazi informazioa lagina hartzeko aukeratu diren ikastetxeetako arduradunei. Euskal Autonomia Erkidegoan lehen hezkuntzako 12 ikastetxek eta bigarren hezkuntzako 8 ikastetxek hartu dute parte, eta 2.000 galdetegitik gora bete dituzte. Galdetegiak 2008ko azken hiruhilekoan bete dituzte.
- Lankidetzat proiektu hau dela eta, espero dugu materiala baliagarria izatea hezkuntza komunitatearentzat. Zentzu horretan, uste dugu materiala bereziki egokia izan daitekeela komunikazioaren teknologia digitalekin apenas harremanik ez duten helduentzat. Eta hori hala dela uste dugu materialak dauzkan jardueren metodologia eta gomendio kopuru handia kontuan hartuta eta word formatuan eta paperean dagoelako; eta helduentzat ohikoagoak eta erabilgarriagoak direlako halako formatuak. Beharbada, helduentzat material egokia da ikasteko.
- IKTn erabilerari buruzko azterketaren eta eskuliburu praktikoen zabalkundea 2009an egingo da hezkuntza komunitatean. Datu babesa hezkuntzaren esparruko gaia da guztiz; hain zuzen ere, pertsonak eskubide horren berri izan behar dutelako, zein garrantzitsua den ulertzeko. Askatasunen eta Informatikaren Batzordea (CLI) gizartea eskubide horretaz kontzientziatzeko sortu zen, besteak beste; eta indarra eginez gazteen eta nerabeen esparru sozialean.

Datuak babesteko Euskal Bulegoa eta Askatasunen eta Informatikaren Batzordeak (CLI) datu babesaren esparruan lankidetzarako esparru bat finkatu zuten 2007an eta lankidetzarako hitzarmena batekin formalizatu zuten.

13. Datu pertsonalen babesaren inguruko sentsibilizazioko eta prestakuntzako materialak sortzea.

13.1. Langile publikoen sentsibilizazio eta prestakuntzarako bideo baten banaketa eta zabalkundea

“Argia piztu da. Datu pertsonalak babesteko eginkizuna betetzen” bideoa sentsibilizaziorako eta prestakuntzarako materiala da, eta Erresuma Batuko **Information Commissioner’s Office** erakundeak argitaratutako ikus entzunezko materialaren egokitzapena da.

Prestakuntza baliabide honek honako osagaiak ditu: a) Autoprestakuntzarako prestakuntza bideoa, b) Ikaskuntza egiaztatzeke galde-sortak, c) Prestakuntza aretoetan emateko prestakuntza bideoa DVD formatuan, eta d) Datu pertsonalen kudeaketaren gaineko hausnarketa-ariketa bat, “Argia piztu da ...” ikusi ondoren erabiltzeko.

DBEBk prestakuntza material horren 1.000 ale argitaratu zituen, eta 2008ko maiatzaz geroztik hainbat jarduera gauzatu ditu materiala ezagutzera emateko, bai EAEn bai erkidegotik kanpo:

DVDa euskal administrazio publiko guztietara bidaltzea: toki administrazioei, foru administrazioari, autonomikoari eta bestelakoei (Batzar nagusiak - Datuak babesteko beste agentzia batzuk – Kontseilu aholku-emailea, EHU, 280 erakunde baino gehiago). DVDa DBEBren Oroitidazkiarekin batera bidali zen (2008ko maiatza). Bestalde, Eusko Jaurlaritzako sailtako zuzendaritza guztietara helarazi zen DBEBren zuzendariaren eta Funtzio Publikoko sailburuordearen gutun batekin.

Argitalpenaren berri ematea zenbait gune digital publikotan: (DBEB, Eusko Jaurlaritzaren intraneta —2008ko maiatzetik urrira arte—, Gipuzkoako Berrikuntzaren bloga eta abar). Gerora, esparru publikoko beste intranet batzuek ere bideoa atxikitzeke estekak eskaini dituzte, adibidez, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak.

Bideoaren zabalkundea eta bideoa ikusteko aukera DBEBren www.avpd.es web orriaren bidez (2008ko azaroa).

Esparru publikoko nahiz pribatuko eskatzaileei DVDaren kopiak helaraztea, baldin eta aldeztatik eskatu badute eta prestakuntza aretoetan ikusteko bada, horrelako tokietan DBEBren web orrian ikusita baino askoz kalitate hobearekin ikus baitaiteke (2008ko azaroa). Beherago ikus daiteke zeintzuk izan diren eskatzaileak, multzoka.

Bideoaren jarraipena egitea *blogetan (loturak eta postak)* eta datu babesaren esparruko aholkularitza-enpresen eta unibertsitateko irakaskuntza arloko profesionalen foroetan eta. Hona hemen adibide bat: <http://seguridad-de-la-informacion.blogspot.com>; protecciondatos@listas.um.es.

DVDaren zabalkundea eta banaketa egiteko, DBEBk hasieran zeukan politikaren arabera, zabalkundea eta banaketa Euskal Autonomia Erkidegoan eta bertako erakunde publikoetan egin bat batez ere, horixe baita izatez Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren eragin esparrua.

Bideoa EAEko esparru publikoan ezagutarazi eta banatzeko geneukan helburua bete eta gero, beste zenbait administrazio, unibertsitate eta profesionalek, Espainiakoek nahiz beste herrialde batzuetakoek, egindako informazio eta material eskaerei ere erantzun genien. Hona hemen eskatzaileetako batzuk multzokatuta:

Prestakuntzako DVDa eskatu duten erakundeak eta profesionalak	
Unibertsitateak eta lanbide elkargoak	Bartzelonako Unibertsitatea, Malagako Unibertsitatea, FOREM fundazioaren prestakuntzako plataformako lotura, Valentziako Unibertsitatea, Alacanteko Unibertsitatea, Elxeko Miguel Hernández Unibertsitatea, Valentziako Gizarte Graduatuen Elkargoa, Santiagoko Unibertsitatea, Balear Uharteetako Unibertsitatearen Praktika Juridikoko Unibertsitate Masterra.
Espainiako Administrazio Publikoak	Bartzelonako Udala, Bartzelonako Diputazioa, Granadako probintziako Lanerako Prestakuntza, Andaluziako Juntako Administrazio Publikoko Institutu Andaluziarra, Andaluziako Juntako Osasun Zerbitzua, Kataluniako lehen mailako zenbait arreta zentro, Castilla la Manchako Juntako Industria, Energia eta Ingurumen Kontseilaritza, herriaren defentsariak, Ingurumen eta Landa eta Itsas Inguruneke Ministerioa (Valentzia), Carreñoko Udala (Asturias).
Euskadiko beste erakunde batzuk	Lantik, Gureak taldea.
Aholkularitza eta prestakuntza arlo pribatuko profesionalak	Autonomia elkarte askotako profesionalak. Eskaerak egon dira Euskal Herritik, Malagatik, Bartzelonatik, Kanariar Uharteetatik, Galiziatik, Cáceresetik eta abar.

Informazio eskatzaileei materiala bidaltzeaz gain, material horri eman nahi zioten prestakuntza erabilerari buruzko informazio kualitatiboa emateko eta materialari zenbaterainoko onura antzematen zioten esateko eskatu genuen. Horren ondorioz, prestakuntza arloko esperientzien elkar trukatzeko guztiz emankorra sortu zen eta zorionak ere jaso ziren prestakuntza materiala dela-eta. Guztietan gauzarik aipagarriena izan zen bideoa ulertzeko modua; izan ere, erakundeetan, datu babesak duen zentzuaren gainean, dituzten okerreko ideiak aldatzeko tresna baliagarritzat hartzeaz gain, datu babesarekiko interesa sortzeko tresnatzat ere jo da, begi bistan uzten duelako norbere laneko eginkizunen eta pribatutasuna babestu behar diren arteko harremana. Zentzu horretan eta Bartzelonako Diputazioak esan duenez, bideoa izan da Kataluniako tokiko esparruko zuzendari-arduradunen prestakuntza-tresna nagusia.

Hasieran egindako 1.500 aleko argitalpena ia osorik banatu ziren. Nahiz eta bideoen eskaera handia izan zen, dudarik gabe uste dugu bideo honen zabalkunderako eta prestakuntzako beste baliabide batzuen eta baliabide informatzaile batzuen zabalkunderako bestelako jarduera batzuk egin beharra dagoela, ziur egoteko erakundeek badakitela material hori bertan dutela eta erabili egiten dutela.

Horretarako, bi ekintza hauek egitea proposatzen dugu:

- Bideoak www.youtube.com leku bat izan dezan kudeatzea
- DBEBren web orrian erakundeei zuzendutako sentsibilizazio eta gaikuntza arloko atal bat diseinatzea, eta bertan bideoa nahiz beste zenbait tresna aurkeztea. Horretaz gain, nola erabili ere azaltzen da.

13.2. *Biomedikuntzaren arloan egiten den datu pertsonalen tratamendurako Jardunbide Egokien Eskuliburua*

Lan prozedurak aldatzeko lagungarri izango diren materialak izateko asmoarekin, “unibertsitatea-enpresa” erako kontratu bat negoziatu zen Giza Genomaren Katedrarekin, Jardunbide Egokien Eskuliburu bat egiteko biomedikuntzaren arloan egiten den osasuneko datu pertsonalen tratamendurako.

Hona hemen proiektuaren helburuak:

- Eskuliburuaren xedea da biomedikuntzako profesionalei tresna bat eskaintzea pazienteen eta ikerketaren subjektuen osasunari buruzko datu pertsonalak tratatzen laguntzeko.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan biomedikuntzaren arloan egiten den osasuneko datu pertsonalen tratamenduan ezgarriak diren arauak sistematizatzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoan pazienteen eta ikerketaren subjektuen autodeterminazio informatiborako oinarritzko eskubidea errespetatzen dela bermatzeko lagungarri izatea.
- Herritarrek datu pertsonalen babesaren arloan dituzten eskubideen pertzepzio sozialerako eta horiei dagozkien eskumenez baliatzeko bideen berri izateko lagungarri izatea.
- Lagungarri izatea, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa bere eskumenpeko esparruetan egon dadin.
- Antzeko jarduera ildoak dituzten erakundeen arteko lankidetzak harremanak erraztea.

13.3. *Datuak Babesteko Irlandako Agentziaren prestakuntza-bideo baten egokitzapena*

DBEBren xedeetako bat da arlo publikoan lan egiten duten pertsonak eta, oro har, herritarrek ere sentsibilizatuta egotea datu babesari buruzko araudiak informazioaren kudeaketaren esparruan dituen eskakizunen inguruan. Helburu hori erdiesteko, Bulegoak hainbat hezkuntza eta prestakuntza material sustatu eta diruz lagundu ditu, pribatutasunerako eskubidea eta horren gaineko araudia ulertzeko laneko arloan. Hori egiteko abiaburua da benetan sinestea garrantzi handia duela hainbat hezkuntza material izatea, edukiaren, formatuaren eta hedapenaren aldetik era askotakoak izan daitezkeenak, jakinik horietako batzuk zailak direla diseinatzen eta ikuspuntu ekonomikotik kostu handikoak. Horien artean aipatzeko modukoa da bideo formatua (DVD), jarrera aldaketak eragiteko tresna eraginkorra delako, hain zuzen ere, laneko estiloen eta portaeren osagai emozionaletan eragina duelako.

Prestakuntzako eta sentsibilizaziorako zein material sortu erabakitzen ari ginenean, informazioaren eta datu pertsonalen babesaren arloko hainbat erakunderen web orriak aztertu genituen. Horren ondorioz, 2007an DBEBk Erresuma Batuko Informazio Agentziak (ICO) argitaratutako bideo bat egokitu zuen, iritzi ziolako datu babesaren esparruan sartzeko baliagarria izan zitekeela edonorentzat. Egokitutako DVDak harrera ezin hobea izan zuen gure eskumen esparruan, eta, oro har, gaztelaniaz funtzionatzen duten erakundeetan. Horren gaineko azalpena “Langile publikoen sentsibilizazio eta prestakuntzarako bideo baten banaketa eta zabalkundea” atalean dago jasota.

Lehenengo aldia zen halako esperientzia bat egin genuena, eta emaitza ikusita, Bulegoak berretsi egin zuen sentsibilizaziorako material multimedia horiek kritikoak direla gure helburuei begira. Jarduera ildo horrekin segituz, Irlandako Datuak Babesteko Agentziaren My Data – Your Business? bideoari eta bideoak zekarren “*Bideoa ikusteko eragilearentzako gidaliburua*” liburuxkari material onak zirela iritzi genien. Hain zuzen ere, DVDaren edukia ezin hobea da edozein erakundetan datu babesaren arloko jardunbide egokiei behar duten garrantzia eman diezaieten, askotan lan nekeza izaten delako betiko jarduteko modua eta gauzak egiteko erak aldatzea. Bideoan ikusten da enpresa bateko langileek ulertu behar dutela haien lan egiteko erak hirugarren

pertsonen pribatutasunari eragiten diela, lan egiteko erak aldatzeko orduan oztopoak jartzen direla eta langileei kostatu egiten zaiela jardunbideak aldatu behar dituztela ulertzea; horregatik, maiz erakundeen zuzendaritzek ere esku hartu behar izaten dute laguntza emanez. “*Bideoa ikusteko eragilearentzako gidaliburua*” baliabide ezin aproposagoa da norbere erakundeko jardunbideei buruz hausnartzeko, bereziki datu pertsonalen tratamenduei buruz eta pertsonengan izan dezaketen eraginaz.

2008ko abenduan Irlandako Datuak Babesteko Agentziak adierazi zuen baimena ematen zuela berak egindako sentsibilizaziorako materialak egokitzeko, eta esan zuen poz handia hartu zuela pribatutasunaren eta informazioaren esparruan sentsibilizazioari eta prestakuntzari buruz geneuzkan planen berri izan zuenean. Beraz, DBEB 2009an hasi da *My Data – Your Business?* DVDa eta bideoa ikusteko gidaliburua egokitzeko urratsak ematen.

13.4. *Datuak Babesteko Espainiako agentziek eskola umeei eta gazteei zuzendutako pribatutasunari buruzko proiektuen azterketa eta proiektu komun bat garatzeko aukera*

Datuak Babesteko Espainiako, Madrileko, Kataluniako eta Euskadiko agentzien idazkaritza nagusiek erabaki zuten indarrak batzea guztien artean aztertzeko eskolako populazioari eta gazteei zuzendutako pribatutasunaren eta informazio pertsonalaren babesaren esparruko jarduerak eta guztien artean lan egiteko, ezagutza kudeatuz eta, hala badagokio, gerora proiektu komunak partekatuz.

Ekimen hau sortu zen ikusi zelako eskolako populazioa eta gazteak direla herritarren kolektiboen artean pribatutasunari eta informazioa babesteari buruzko informazio premia gehien dutenak. Gainera, kontuan hartuta kolektibo hori gazte-gaztetatik hasten dela sare sozialetan eta komunikazio sozialeko sistema elektronikoak erabiltzen, nonahi topa ditzakete arriskuak eta mehatxuak.

Arazo horretarako konponbidea lortzeko, DBEB proiektuaren gaineko oinarritzko dokumentu bat egin zuen eta bertan honakoak zehaztu zituen: helburuak, laneko metodoak, lan taldeetako kideak eta arduradunak, kronograma eta jarduera proposamenak onartzeko mekanismoak.

Lan taldearen helburu eta metodologiaren oinarritzko dokumentu orokorra adostu eta gero, DBEBn Gazteentzako Pribatutasunaren arloko Proiektuak Aztertzeko Fitxa bat eta fitxa betetzeko Gida diseinatu ziren. Era berean, pribatutasunaren eta gazteen arloan espezializatutako 24 esperientzia edo proiektu identifikatu ziren lehendabizi eta proiektuan parte hartzen zuten agentzien artean seina entitate eta/edo proiektu esleitu ziren, azter zitzaten.

Espero dugu agentzien arteko lankidetzaren proiektu hau —emaitzak 2009an ikusiko dira— baliokoa izatea ezagutza eta baliabideak partekatzeko haur eta gazteen onurarako eta haien pribatutasun eta segurtasunerako.

14. Euskal administrazio publikoetan datu pertsonalen babesaren arloan aldaketak bultzatzeko egitasmoak sortzea

14.1. Toki erakundeetarako Jardunbide Egokien Eskuliburua.

Jardunbide Egokien Eskuliburua Euskadiko toki erakundeentzako Ereduzko Kode bat da, eta bere xedea da datu pertsonalen babesaren arloko araudiak ezartzen duena EAEko toki erakundeek egiten dituzten tratamenduen berezitasunetara egokitzea, datu pertsonalen babesaren arloan kontzientziazioa zabaltzen joan dadin.

Lan taldean hainbat erakundetako pertsonak hartu zuten parte. Honako hauek izan ziren: EUDEL, DBEB, Gasteizko, Basauriko, Getxoko, Ermuko, Eibarko eta Beasaingo udalak. Hamalau hilabeteko epealdian 13 lan bilera egin zituzten.

Eskuliburuak honako egitura dauka: edukia bi zatitan banatuta dauzka, alde batetik, xedapen zatia dago (herritarren eskubideak, administrazioen betebeharrak, beste eskubide batzuekiko talka, zenbait kasu konkretu, DBEB, ereduazko kodearen izaera) eta, beste alde batetik, eranskinak daude (zenbait kasu konkretu, dokumentu eredu batzuk, segurtasun agirien eredu batzuk, ezarpen araudia).

Eskuliburuaren edukiaren alderik aipagarrienak dira, alde batetik, **eredu praktikoak**, toki erakunde bakoitzak bere egoerara egokitu ditzakeelako, eta beste alde batetik, kasu konkrituak. Azken horiek datu babesarekin zerikusia duten ohiko egoerei erantzuten diete.

Edizio digital bat egin zen eta papereko beste bat, eta toki erakundeen artean banatu zen. Edizio digitala **DBEBren** eta **EUDEL**en helbide elektronikoetan daude eskuragarri. Erabilera anitzeko baliabide bat da, aukera ematen baitu bertan dauden ereduak eta inprimakiak toki erakunde bakoitzeko komunikazio estilora eta erakunde-nortasunera egokitzeko. Horretaz gain, edizio digitalak eranskin bat dauka legeekin.

EUDELek Datuak Babesteko Euskal Bulegoan aurkeztu zuen eskuliburua eta alkateei eta zinegotziei aurkezteko egun bateko jardunaldi bat antolatu zen. Gero, Euskadiko udal guztietara bidali zen ale bana, eta, azkenik, hiru lurralde historikoetako teknikarientzako hainbat prestakuntza saio antolatu ziren.

EUDELek bere gain hartuko zuen Jardunbide Egokien Eskuliburu honi behar besteko publizitatea emateko ardura. DBEBk, bere aldetik, Bulegoaren web orrian argitaratuko zuen. EAEko toki erakunde guztiek dute eskuliburuari atxikitze aukera, eta horretarako honako prozedura bete beharko dute:

- Atxikitze erabakia hartzea eta erantsitako ereduak egokitzea, hala badagokio, dena delako toki entitatearen errealitateara.
- Atxikitze erabakia EUDELi jakinaraztea.
- Atxikitako toki erakundearen zerrenda eguneratuta izan beharko du EUDELek eta DBEBari eman beharko dio. Zerrenda hori Eskuliburuaren VII. Eranskinean jasoko da Erregistroko inskripzioa egin eta sei hilabeteko epean.

14.2. *Datu Pertsonalak Babesteari buruzko EHUren Arautegiaren eta araudiaren atal garrantzitsuenak modu grafikoan nabarmentzen dituen paperezko bertsio baten argitalpena*

2006an ekin genion Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan aritzeko proiektuari, eta proiektuaren hasierako asmoa jardunbide egokien eskuliburu bat egitea zen. Baina, hasiera-

hasieratik ikusi zen eskuliburua jardunbide egokiak sustatzeko jarduera zabalago baten barruan kokatu beharra zegoela, tartean zeuden pertsonak —Administrazio eta zerbitzuetako langileak, irakaskuntza eta ikerketa arloko langileak eta ikasleak— datu pertsonalen kudeaketaren arloan jardunbide egokiak bereganatzea nahi bazen behintzat.

Planteamendu hori kontuan hartuta, legezko izaera izango zuen tresna bat egitea erabaki zen: erregelamendu bat egitea, hain zuzen ere. Erregelamenduak hainbat baliabide praktiko izan beharko zituela ere pentsatu zen: ereduak, dokumentuak eta pribatutasunarekin zerikusia zuten erabakiak, denak erraz moldatzeko eta egokitzeko modukoak. Azkenik, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Euskal Herriko Unibertsitatearen Arautegia 2008ko irailaren 29ko 185 zk.ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten eta 2008ko urriaren batean sartu zen indarrean.

Xedapen zatiaz gain (xedapen zatiak 6 titulu eta 68 artikulua dauzka), Arautegiak bi eranskin dauzka. I. eranskinak hainbat eredu eta datu babesari buruzko informazio osagarria, informazio klausulak, adostasuna ukatzeko ereduak, atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzeko ereduak, EHUK deklaraturako fitxategiak eta taula batzuk fitxategi automatizatuak eta ez-automatizatuak ezarri beharreko informazioaren segurtasunerako neurrien laburpenarekin. II. eranskinean beste hauek daude: datu pertsonalen esparruko tratamenduen zenbait kasu konkritu arautzen ditu, EHUK dituen datu pertsonalak direla-eta kanpoko erakundeek egindako eskaerak, azterketen emaitzen argitalpena, erreferentzia pertsonalak, irakaskuntza jardueraren gaineko ebaluazioa, matrikularako klausula ereduak eta beste batzuk.

Lan taldeak pentsatu zuen, datu pertsonalen babesaren ikuspuntua sartu nahi izanez gero, komunitate unibertsitarioan, informazioa hedatzeko tresnak beharko zirela. Horrela bada, 2008ko azken hiruhilekoan onartutako Araudiaren paperezko argitalpen bat egin zen. Argitalpen horretarako berariaz hautatutako edukiak aukeratu ziren, ahalik eta modurik ulerterrazenean idatzi ziren eta hobeto irudikatzeko, baliabide grafiko batzuek ere gehitu ziren. 2009an Datu Pertsonalak Babesteari buruzko UPV/EHUraren Arautegiaren 700 ale argitaratuko dira.

Horretaz gain, datu babesaren arloko beste informazio tresna batzuk egitea ere programatu zen. Adibidez: hezkuntza komunitateko kide mota bakoitzarentzako informazio eskuliburuak diseinatzea eta horiek fisikoki kokatzea ohikoenak diren kudeaketa-prozedurekin lotuta, eta datu babesari eta pribatutasunari buruzko edukiak dituen web gune bat diseinatzea eta abar.

2008an Euskal Herriko Unibertsitatea antolaketa arloko eta giza baliabideen arloko bi aldaketa prozesutan murgilduta egon zen, bata errektore berriaren izendapena izan zen, eta, bestea, Lan Eskaintza Publikoaren hautaprobak egitea, kontuan izanik bertako langile askok hartu zutela parte horietan. Gertakari horien ondorioz, hainbat erabaki hartzeko orduan atzerapenak egon ziren eta prozesu horiek denbora asko bereganatu zuten. Beharbada, arrazoiak arrazoiak, horregatik ez zen gauzatu datu-babesa fakultate edo unibertsitate zentro batean ezartzeko proiektua.

14.3. Lankidetzak haur hezkuntza esparru publikoarekin, informazio pertsonalaren esparruan jardunbide egokiak hartzeko

HAURRESKOLAK Partzuergoa erakunde publikoa da, Eusko Jaurlaritzak eta euskal udalek osatzen dute eta bere eginkizuna da haur eskolak kudeatzea eta hiru urtetik beherako hezkuntza arretaz arduratzea. Euskal Autonomia Erkidegoak eredu propio bat du adin horretako haurren premiei kalitateko erantzuna emateko gaitasunarekin.

Hezkuntza eginkizunak berez dakar hezkuntza arloko profesionalen, haurren eta haurren familien arteko elkarreragina, eta elkarreragin horren ondorioz, haurren eta haien familien datu pribatuak eta intimoak asko jakiten dira, eta erabakiak ere hartzen dira datu horiek oinarri hartuta. Garrantzi handiko kontua da datu horiek —osasun arlokoak izan nahiz ekonomikoak, hezkuntza arloko premia bereziei buruzkoak izan, esku hartze eta arrisku sozialei buruzkoak izan nahi bestelakoak

izan— modu egokian, konfidentzian eta seguruan erabiltzea. Era berean, informazio hori guztia kudeatzean funtsezkoa da haurren bazterketa soziala ekar dezaketen profil desegokiak ez daitezen egin arinkieriaz jokatzegatik. Pentsatzekoa da zer gerta zitekeen zenbait datu sentzible behar bezala ez erabiltzeagatik, esate baterako, arraza, sinesmenak edo osasun datuak. Azken finean, gakoa da indibidualtasuna, berdintasunerako eta aniztasunerako eskubidea bermatzea, azkarregi egindako profil definitzailerik apenas egon dadin.

DBEBk eta HAURRESKOLAKek izenpetutako hitzarmena garatzeko, 2008an sentsibilizazio eta gaitze saioa bat egin zen erakunde horretako pertsona hezitzaileei zerbitzua ematen zien prestakuntza-enpresa batekin. Saio presentziala egin baino lehen, berrikusketa bibliografiko bat egin zen. Haur Hezkuntzako eginkizun hezitzaileari eta pribatutasunari buruzko dokumentu garrantzitsuenak hautatzeko.

Hurrengo fasea 2009an gauzatuko da eta HAURRESKOLAKeko hezitzaileentzako jardunbide egokien gidaliburu bat izango da. DBEBk lagundu egingo dio gidaliburua egiteaz arduratuko den dena delako prestakuntza enpresari. Horretaz gain, DBEBk ikastaro bat antolatuko du, osagarri gisa, hezkuntza eginkizunik izan ez baina haur eskoletako kudeaketa arloetan lan egiten duten pertsonentzat.

15. Esperientziak eta ikastaroak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoetan

15.1. *Hainbat jardunaldi EAEko toki erakundeetarako Datu Pertsonalen Babesaren arloko Jardunbide Egokien Eskuliburuak tokiko funtzionarioei aurkezteko.*

Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeetarako Datu Pertsonalen Babesaren arloko Jardunbide Egokien Eskuliburuak (JEE) dakarren ondorio bat da enplegatu publikoek horren berri izan behar dutela, baliogarria den ala ez adierazi behar dutela eta, hala badagokio, eskuliburuak erabiltzen jakin behar dutela. Hori lortu ahal izateko, eskuliburuak aurkezteko jardunaldi bat antolatu zen. EUDelen prestakuntza planaren baitan. Plana kudeatzeko ardura Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) du. Horretaz gain, beste jarduerak batzuk ere antolatu ziren gizarteko komunikabideetan eta EUDelen eta DBEBren web orrietan beste zabalkunde ekintza batzuk egiteko, eta JEEren aurkezteko jarduerak bat ere egin zen EAEko toki erakundeetarako alkateei eta idazkariei zuzenduta.

Jardunaldien izenburua honakoa izan zen: “*Nola kudeatu behar dira datu pertsonalak toki erakundeetan? Jardunbide egokiak sustatzeko eskuliburu bat*”. Helburuak honako hauek izan ziren:

- Pertsonak sentsibilizatzea datu babesaren printzipioekiko
- Toki administrazioan datu babesaren kudeaketaren inguruko printzipioak, betebeharrak eta eskubideak ulertzea.
- JEEren edukia ezagutu eta nola erabili ulertu.
- Toki administrazioetan pertsonen buruzko informazioa babesteko eta kudeatzeko egin eta inplementatuta zeuden proiektuen berri izatea eta harremanetarako pertsonak ezagutzea
- JEEri atxikita dagoen toki administrazio batean Datu Babesa Inplementatzeko Proiektu batek dituen faseak ezagutzea
- Parte hartzaileek datu babesaren arloan dituzten premiak eta espektatibak zeintzuk diren jakitea eta prestakuntza topaketa ebaluatzea.

Denetariko ikaskuntza-jarduerak izan ziren, adibidez, bideoa bati kusi zen, ahozko aurkezpenak egin ziren eta parte hartzaileen arteko elkarriketa irekia ere egon zen. Gidaliburu bana eman zitzairen eta ikastaroari buruzko dokumentazio idatzia. Horretaz gain, Jardunbide Egokien Eskuliburuaren aleak ere banatu ziren. Bost orduko iraupena izan zuen eta hiru saio egin ziren (Gasteiz, Bilbo eta Donostia).

JEE egin zuten pertsonak aritu ziren irakasle-bideratzaile gisa, hau da, toki erakundeetako eta DBEBko funtzionarioak. Horietatik batzuk datu babesaren ikuspuntua ezartzeko proiektuetan hartu dute euren erakundeetan eta protagonistak izan dira.

Hiru saioak kontuan hartuta, 111 ikaslek hartu zuten parte, eta esan behar da haien arteko lanbide eta profila guztiz heterogeneoa izan zela (udaletako idazkariak, agiritegietako langileak, herritarren arretarako langileak, lege-aholkularitzakoak, gizarte arretarako arloko langileak, giza baliabideetakoak, antolaketa eta kalitatearen arlokoak eta abar). Hor ikusten da informazioa kudeatzeko prozesuek zeharkako izaera dutela erakundeetan.

Asebetetze inkesten gainean, esan behar dugu lehendabiziko saiokoen emaitzak baino ez ditugula, Gasteizen egin zen saiokoak. Batez besteko asebetetze emaitza orokorra 7 da. Irakasleen prestakuntzaren eta materialaren gaineko balorazioa positiboa izan da, eta hobetu

daitezkeen arloen gainean, hurrengo prestakuntza topaketetan eduki eta ariketa praktiko gehiago sartzeko eskatu dute, eta ikastaroa luzeagoa izan dadila.

Ondorio gisa, esan beharrian gaude, gure ustez ikastaro gehiago egin beharra dagoela informazio pertsonala kudeatzeko jardunbide berrien ikaskuntzari laguntzeko. Ikastaro horiek lagungarriak izan behar dira kudeaketa prozesu eta administrazio prozedura definituei heltzeko eta, horrela, modu espezifikoagoan txertatu horietako bakoitzean pribatutasunerako eskubidearen ikuspegia. Ondorioz, garrantzitsua da enplegatu publikoak pilatzea haien laneko prozesuak kontuan hartuta, hau da, Polizia eta Hiritarren Segurtasunaren arloa, Pertsonen arloa, Erregistroa eta Herritarrak Atenditzeko arloa eta abar.

15.2. Prestakuntza proiektu pilotu bat Gipuzkoako Foru Aldundiko Prestakuntza Atalean eta Foru Administrazio Informazioaren Atalean.

Kudeaketa Publikoaren Modernizazioaren eta Hobekuntzaren 2008-2011 Foru Planak “Datuak Babesteko Legearen eskakizunak betetzeko ekintza plan bat egitea” aurreikusten du. Planean jasotako ekintza hori garatzeko, GFA, Kalitatearen Zuzendaritzaren bitartez, harremanetan dago Datuak babesteko Euskal Bulegoarekin (DBEB) esperientzia pilotu bat egiteko, eta gerora Gipuzkoako Foru Aldundi osora zabaltzeko. Esperientzia pilotu horren xedea da Datuak Babesteko Lege Organikoa eta legea garatzen duen Erregelamendua betetzea eta bertako langileei ulertaraztea zein garrantzitsua den datuen babesa eta segurtasuna, eta irakastea nola kudeatu behar dituzten egunero lanean eskuartean dituzten datu pertsonaldun fitxategiak eta informazioa.

2008ko martxoan erabaki zen esperientzia pilotua Prestakuntza Atalean eta Foru Administrazio Informazioaren Atalean egitea. Esperientziak datu babesaren arloko informazio eta prestakuntza esku hartzeak ditu oinarri eta laneko rolak eta jardute esparruak hartzen ditu kontuan. Horretarako, hau da, lehen aipatutako helburua erdiesteko, aldundiko gainontzeko administrazioan erabiltzeko modukoak izan daitezkeen ikaskuntza prozesuak diseinatu eta ebaluatu beharko dira, eta hasierako prestakuntzako edo etengabeko prestakuntzako planetan eta programetan txertatu.

Hona hemen prestakuntza esperientzien oinarritzko diseinua:

- Datu babesaren (DB) arloko zeharkako prestakuntza plana honako jarduerekin:
- Sentsibilizazio bideoa.
- Oinarritzko ikastaro presentziala GFAko langile guztientzat. Oinarritzko ezagupenak, trebetasunak eta jarrerak identifikatu behar dira, honakoen bidez: prestakuntzako curriculumaren diseinuaren metodologia eta datuen galde-sorta bat. Galde-sorta ikastaroa programatu aurretik betetzekoa da eta bertan parte hartuko dutenek bete beharrekoa. Hasieran modalitate presentziala antolatu da, nahi eta etorkizunean lineako diseinuek izan dezaketen balio erantsia ebaluatzeko aukera ere hor dagoen. Metodologia eman beharreko materiaren araberrakoa da eta irakaslea da prestakuntza saioetako protagonista.
- Datu babesarekin zerikusia duten laneko rolen araberrakoa ikastaroak. Ikastaro horiek diseinatzeko, Datu Babesaren arloko curriculum diseinua eginez diseinatzen dira, lanbideko rolen araberrak (segurtasun arduraduna, fitxategiaren arduraduna, lege aholkularia, datu pertsonalen erabiltzailea, eta abar), hobeto ezarri ahal izateko prestakuntza helburuak, edukiak eta jarduerak. Diseinuaren abiapuntua eginkizunak (datu babesaren erabilerarekin eta pribatutasunaren babesarekin zerikusia dutenak) eta gaitasunak dira.
- Administrazioako unitate zehatz batzuetan, datu babesa ezartzeko, lantegi monografikoak egitea. Helburu berezituak dituzten fitxategi eta datu pertsonal jakin batzuk kudeatzen dituzten administrazioako unitate espezializatuetan egiten dira esku hartzeak dira. Erabiliko den ikaskuntza metodoa analisi erreflexiboa da, prestakuntza-ekintza erako modalitatetik

gertu dagoen modalitate bat. Informazioaren segurtasunaren arloko gai teknikoak ez dira sartuko.

GFAk eta DBEBk laneko agenda bat adostu dute jarduera horiek diseinatzeko eta garatzeko. 2008an zenbait aurrelan aurreratu ziren, besteak beste, GFAtik informazio garrantzitsua eskuratzea. GFAko langileek honako prestakuntza jardueretan eta informatzaileetan hartu zuten parte, beste batzuen artean:

a. “*Argia piztu da... datuak babesteko eginkizuna betetzen*” bideoa Kudeaketa Publikoa Modernizatzeko eta Hobetzeko Planari eskainitako Hobekuntza *blog*ean kokatu da. Bertan GFAko langileek hartzen dute parte.

b. Oinarritzko mailako prestakuntza jarduera. Ekainean bi prestakuntza topaketa egin ziren. Prestakuntza Zerbitzuko eta Informazio administratiboko bulegoetako 13 pertsonak eta DBEBko beste bik hatu zuten parte. Helburuak honakoak izan ziren: datu babesaren printzipioak ulertzea; erabiltzen diren eta egiten diren tratamenduen gaineko hasierako azterketa bat egitea; herritarrek duten informazio premien gaineko hasierako azterketa bat egitea; beste erakunde eta pertsona batzuek dutenena egitea (informazio lagapenak eta komunikazioak); jakitea nolako prozedurak dauden herritarrek zenbait eskubide erabil ditzaten hausnarketa egitea informazioa kudeatu eta atzitzeko egungo jardunbideei buruz, eta, hala badagokio, jardunbide hobeak proposatzea. Metodologiak jarduera praktikoa ere aurreikusten zituen, talde txikietan egiteko, adibidez, parte hartzaileen lan esparruan egindako tratamenduei buruzko hausnarketa egitea eta arazoak konpontzea.

2008ko urrian zehaztu zen nola helduko zitzaion esperientzia pilotuaren bigarren faseari, eta hori zehazteko orduan eragin handia izan zuen proiektua koordinatzen zuten bi pertsonen lan kargak. Beraz, erabaki zen esperientziarekin aurrera egitea Foru Administrazio Informazioaren Atalean eta horri ematea lehentasuna, han ikasten eta inplementatzen dituzten jardunbide egokiak oihartzun eta eragin handiagoa izango dutelako erakunde osoan, bulego horretako prozesuek guztiz zeharkako izaera dutelako: erregistroa, mezularitza, prestazio ekonomikoen ziurtagiria, familia-liburua eta abar. Era berean, atal horretan prozesu horiek birdiseinatzeko egiten ari diren lana ezinbestekoa da datu babesaren ikuspuntua txertatzeko.

15.3. *Ikastaro bat HOBETUZ–Langileen Prestakuntzarako Fundazioarentzat*

HOBETUZ- Langileen etengabeko prestakuntzarako Fundazioak DBEBren lankidetza eskatu zuen bertako 22 langileentzako ikastaro bat garatzeko.

Ondoren, laguntza eskatu duen erakundearen gaineko azalpen batzuk emango ditugu. HOBETUZ fundazioaren helburua da etengabeko lanbide prestakuntza eraginkorragoa izatea, etengabeko prestakuntza-enpresen eta Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona landunen prestakuntza premiekin uztartuz.

Horretarako, HOBETUZek hiru laguntza-deialdi kudeatzen ditu: bi enpresentzat eta bat prestakuntza zentroentzat, ikastaroak antola ditzaten. Eginkizun horrek enpresen datuak (bankukoak eta sozioekonomikoak), ikasle eta parte hartzaileen datuak (sozialak, pertsonalak, ekonomikoak) eta diru laguntzen ingurutik eratorritako datuak kudeatzea dakar. Horretaz gain, informazio eskaerei erantzun behar izaten zaie eta datu erantzien lagapenak ere egiten zaizkie kontsultoreei helburu estatistikoetarako edo erabakiak hartzeko.

HOBETUZen jarduerak ikusirik, honako helburuak finkatu ziren ikastarorako: datu pertsonalak behar bezala kudeatzeak duen garrantziaz ohartzeko sentsibilizatzea, batez ere informazioaren segurtasunak duen garrantziaz ohartzea, eta argitzea ikertzaileek eta tartean dauden beste batzuek, adibidez, langileek eta haien enpresek, duten atzipen eskubidearen inguruko zalantzak.

Prestakuntza topaketa Bilbon izan zen 2008-09-08an, 5 orduko iraupena izan zuen eta 19 lagunek hartu zuten parte. Ikastaroaren helburuak oinarritzko ikastaroko berak izan ziren, hau da, datu pertsonalak erabiltzen dituzten langileen sentsibilizazioa eta prestakuntza: datu babesaren printzipioak ulertzea; erabiltzen diren eta egiten diren tratamenduen gaineko hasierako azterketa bat egitea; herritarrek duten informazio premien gaineko hasierako azterketa bat egitea; beste erakunde eta pertsona batzuek dutenena egitea (informazio lagapenak eta komunikazioak); jakitea nolako prozedurak dauden herritarrek zenbait eskubide erabil ditzaten hausnarketa egitea informazioa kudeatu eta atzitzeko egungo jardunbideei buruz, eta, hala badagokio, jardunbide hobeak proposatzea. Metodologiak jarduera praktikoa ere aurreikusten zituen, talde txikietan egiteko, adibidez, parte hartzaileen lan esparruan egindako tratamenduei buruzko hausnarketa egitea eta arazoak konpontzea.

Ikasleen asebetetze mailari buruzko inkesta ikusita, DBEBko prestatzaileen lanak balorazio ona izan du, bai eta haien ezagupenek eta komunikazio gaitasunak ere. Hobetu beharrekotzat jo dira honakoak: prestakuntza premietara hobeto egokitzea eta jarduera praktikoei teorikoei baino denbora gehiago eskaintzea. Zentzu horretan aipatu behar da ikastaroa berandu hasi zela arazo teknikoak egon zirelako eta, ondorioz, ikasleek parte hartzeko denbora gutxiago izan zuten. Horretaz gain, parte hartzaileen espektatibei eta berariazko premiei buruzko informazioa bildu zen arren, badirudi informazio hori ez zela behar bezala tratatu, beharbada ikastarorako programaturako denbora ez zelako nahikoa izan.

15.4. Kontsumoa eta Datu Pertsonalen babesari buruzko ikastaroa

2008ko martxoan DBEB eta Eusko Jaurlaritzako Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza elkar lanean aritu ziren zuzendaritzak eskaera bat egin ziolako Kontsumitzaileak Atenditzeko Bulegoko teknikariei zuzendutako jardunaldi informatibo batean parte hartzeko. Horretarako, DBEBk Kontsumoari eta datu babesari buruzko aurkezpen bat egin zuen: Ondare eta kreditu kaudimenari buruzko informaziodun fitxategien kasu berezia.

Topaketa honetan datu babesari buruzko prestakuntza-bideo bat ikusi zen, Kontsumoa eta datu babesari buruzko berariazko gaiaren gaineko aurkezpen bat egin zen eta parte hartzaileekin hitz egin zen. Zehatz esanda, merkataritza-komunikazioaren eta kontratazio elektronikoaren jarduerak eta horiek egiteko baldintzak aztertu ziren, jakiteko ea betetzen ziren datu pertsonalen babesaren printzipioak eta enpresek dituzten betebeharrak, hau da, publizitate eta merkataritza prospekzioko helburuekin tratatzen ziren datuen jatorriarekin zerikusia duten betekizunak betetzen ziren; izan ere, jatorria aintzat hartuta, pertsona informatu egin behar da honakoetan: merkataritza-komunikazio bat egiten den bakoitzean, bere datuak jendearen eskurako iturrietatik jaso badira, datuen jatorriaren arabera, tratamenduaren arduraduna nor den esan behar zaio, bai eta zein eskubide dituen eta nola erabil ditzakeen ere.

Ikasleekin egindako elkarriketan pertsonen eskubideei buruz eta kontsumitzaileek nahi ez dituzten egoerei buruz hitz egin zen, bai eta horrelakorik gerta ez dadin har daitezkeen prebentzio neurriei eta arazoaren konponbideei buruz ere. Kontsumitzaileek nahi ez dituzten egoeren artean aipatzekoak dira honakoak, maiz gertatzen direlako: bat izaten da izendun publizitatea jasotzea, datuen jatorria zein de jakin gabe; beste kasu bat da datu pertsonalak eta bankukoak telefonoz eskuratzea, eta horren ondorioz, norberak nahi gabeko harpidetzak, kontratuak eta abar sortzea, eta, hortik, fakturak ordaindu beharra etortzea, eta, gainera, kontsumitzaileak baja eman nahi badu eta gehiago jaso nahi ez badu, hori egitea ez lortzea; bestea izaten da berankorren erregistroan datu pertsonalak ezerezteko eskatzea; beste bat ikuskaritza edo erreklamazioen ondorioz merkatariei egiten zaizkien elkarriketetan datuen bat eskatzea eta merkatariek datuak ukatzea, datu pertsonalen babeserako eskubidea aitzakiatzat hartuta.

Azken finean, argi dago merkataritza-komunikazioaren eta kontratazio elektronikoaren esparruko jarduerak hutsuneak dituztela datu pertsonalen babesaren esparruko eskubidearen ikuspuntutik.

Eta, zentzu horretan, ikastaroan parte hartu dutenek garrantzitsutzat jo dute denen artean egindako hausnarketako jarduerak.

15.5. Haur eta nerabeen arreta eta babesari buruzko esparruaren baitan datu babesari eta konfidentzialtasunari buruzko jardunaldi profesionala

2008ko urrian Bermeoko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Patronatuak, Agintzari elkartearen bidez (gizarte ekimeneko kooperatiba bat da), jardunaldi bat antolatu zuen honako gaiari buruz: Gizarte arriskuan dauden ikasleak atenditzeko eta babesteko esparruaren baitako konfidentzialtasuna eta informazioari buruzko sentsibilizazio komunitarioa.

Haurrak eta nerabeak babesteko jarduerak-esparruan badago garrantzi handiko kontu bat eta zera da, datu pertsonalen tratamendua, konfidentzialtasuna eta lanbide sekretuaren mugak. Lortu nahi dena da hezkuntza, osasun eta gizarte arloko profesionalen arteko komunikazio fluxua erraztea, baina, beti ere jarduteko irizpide nagusitzat hartuta adin gabekoaren interesa eta ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideak, eta haurrak edo nerabeak baztertzeko erabil daitezkeen profilak sortu gabe.

Azken finean, helburua da babesik gabe geratzeko arrisku egoeretako deribazio prozesuetan egon ohi diren arazoei buruz hausnarketa egitea. Arazo horiek profesionalen eta adin gabekoen eta haien familien arteko komunikazioarekin eta informazio trukatzearekin dute zerikusia. Zehatzago esanda, gizarte zerbitzuetan lan egiten duten pertsonak uste dute ikastetxeetatik nekez eskuratzen dela adin gabekoei buruzko informaziorik eta arriskuan dauden adin gabekoen deribazio batzuk ez direla garazi heltzen. Informazioa emateko orduan jartzen diren trabek erakusten dute informazio pertsonala kudeatzeko irizpideak ez daudela argi. Horretaz gain, honako gaien gaineko zalantzak dituzte: ematen den informazioaren segurtasuna, informazioarekin egiten diren bidalketak edo lagapenak eta informazio pertsonala komunikatu aurretik lortu beharreko adostasuna.

Jardunaldi honetan erabilitako metodologia egokia izan zen topaketetan egon zirenen parte hartzea bultzatzeko: aldeztu aurretik galde-sorta bat eginez eta kasu praktikoak eta gonbidatutako adituen planteatzeko galderak bilduz. Gainera, datu babesari buruzko bideoa bat ikusi zuten, gizartekintzako teknikari baten eta datu babesaren esparruko beste teknikari baten ahozko azalpenak entzun zituzten eta parte hartzaileek ere eztabaidarako aukera izan zuten.

Ebaluazio galde-sortak aztertu eta gero ikusi da gizarte zerbitzuen esparruan datu pertsonalak trukatu eta lagatzearen gaineko eta datu horien segurtasunaren gaineko galdera asko egin direla, eta, ondorioz, kasu praktikoak lantzeko denbora gehiago beharko zela (4 ordu gutxi gorabehera) edo eta jardunbide egokiak sortzeko moduak bestelako metodologiaren bat behar duela (lantegiak, lan saioak adituekin, edo adituei galderak egiteko aukera izan eta abar).

15.6. Informazioaren kudeaketari eta datu babesari buruzko ikastaroa Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeari (GUF-IFAS) zuzenduta.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak (GUF) DBEBren laguntza eskatu zuen Informazioaren Kudeaketari eta Datu Pertsonalen babesari buruzko ikastaro bat egiteko elkarlanean, bertako 21 langileentzat (langileen kudeaketako eta kontratazioeko teknikariak eta administrariak).

GUFEn misioa da bere zaintzapean dauden pertsonen premia sozialak asetzea kalitatezko gizarte zerbitzu espezializatuak emanez. Hori dela eta, ezinduentzako, adineko pertsonentzako, adin gabekoentzako zentroak eta zentro sozio-sanitarioak, gizarteratzeko zentroak eta abar kudeatzen ditu.

Gizarte zerbitzuen zeharkako kudeaketarekin bat datozen beste prestakuntza helburu hauek ere planteatu ziren ikastarorako: datu pertsonalak behar bezala kudeatzeak daukan garrantziaz

sentsibilizatzea, eta, bereziki, zalantzazko puntu batzuk argitzea, adibidez, honakoak: langileen zeintzuk tratatu eta laga daitezkeen (kontratuak egitean, lizentziak ziurtatzean eta abar) eta enpresen zeintzuk datu (kontratazio lehiaketan adibidez), noiz den beharrezkoa tratamendua egiteko adostasuna, epaitegiek eta beste instantzia batzuk egiten dituzten atzipen eskabideak eta abar. Ikastaro honen helburua ez da pertsonen gizarte arreta emateko jardueraren gainean hausnartzea, ez behintzat pertsonen eskubideen eta informazioaren kudeaketaren ikuspuntutik.

Prestakuntza topaketa Bilbon izan zen 2008-02-01ean, 5 orduko iraupena izan zuen eta 20 lagunek hartu zuten parte. Ikastaroaren helburuak oinarritzko ikastaroko berak izan ziren, hau da, datu pertsonalak erabiltzen dituzten langileen sentsibilizazioa eta prestakuntza: datu babesaren printzipioak ulertzea; erabiltzen diren eta egiten diren tratamenduen gaineko hasierako azterketa bat egitea; herritarrek duten informazio premien gaineko hasierako azterketa bat egitea; beste erakunde eta pertsona batzuek dutenena egitea (informazio lagapenak eta komunikazioak); jakitea nolako prozedurak dauden herritarrek zenbait eskubide erabil ditzaten hausnarketa egitea informazioa kudeatu eta atzitzeko egungo jardunbideei buruz, eta, hala badagokio, jardunbide hobeak proposatzea. Metodologiak jarduera praktikoak ere aurreikusten zituen, talde txikietan egiteko, adibidez, parte hartzaileen lan esparruan egindako tratamenduei buruzko hausnarketa egitea eta arazoak konpontzea.

Asebetetze inkestaren emaitzak ikusi eta gero, esan behar da DBEBko prestatzaileen ezagupenei eta komunikazio gaitasunari buruzko balorazioak positiboak izan direla. Ikastaroan egindako jarduera praktikoak eta ikasleei banatutako dokumentazioak ere balorazio positiboa izan dute.

15.7. Euskal Herriko Polizi Ikastegiko Joku eta Ikuskizun Zuzendaritzako ikuskatzaileei zuzendutako ikastaroa

2008ko irailean DBEBk Joku eta Ikuskizunen Zuzendaritzaren eskaera bat jaso zuen Joku eta Ikuskizunetako ikuskatzaileei zuzendutako ikastaro bat egin eta diseinatzen laguntzeko, datu pertsonalak babesteari buruzko. Ikastaroa Euskal Herriko Polizi Ikastegiak Joku eta Ikuskizunen arloan daukan Eguneratze eta Sakontzen Ikastaroaren barruan dago.

Lehendabizi, prestakuntza beharraren oinarritzko azterketa egin zen, eta, horretarako, ikastaroa programatu aurretik, alde aurreko galde-sorta eman zitzaien betetzeko.

Azterketa hori egin ondoren, 4 orduko iraupena zuen ikastaro bat programatu zen titulu honekin: Nola kudeatu Joku eta Ikuskizunetako ikuskapenak eta han erabilitako datu pertsonalak behar bezala babestu? Ikastaroaren helburua zen ikuskatzaileak ulertzea datu pertsonalak behar bezala kudeatu behar direla eta han duten informazioaren segurtasunak eta konfidentzialtasunak izan ditzakeen arriskuak identifikatzea, nahiz eta oso estandarizatutako prozedurak izan.

Prestakuntza topaketa Arkauten (Araba) egin zen 2008ko azaroaren 10ean, eta bertan 16 ikuskatzailek eta DBEBko Lege Aholkularitzako Zerbitzuko legelari batek hartu zuten parte.

Irakaskuntza-ikaskuntza metodologiak hainbat jarduera desberdin zituen: batetik, azalpen teorikoa, ikusizko baliabideak erabiliz, esate baterako, *power pointak*; bestetik, gaian sartzeko sentsibilizaziorako ikus entzunezko materiala ikusi; eta horretaz gain, jarduera praktikoak, talde txikietan egiteko, eta, azkenik, parte hartzaileen zalantzak argitzeko tartea. Zehatza esanda, ariketa bat prestatu zen ikuskapenetako prozeduretan erabiltzen diren datu pertsonalei buruzko kasuei konponbideak bilatzeko. Ariketa horren helburua izan da gailu eramangarrietan eramaten den informazioari buruzko eta ikuskapenetako prozeduretan zenbait egoeretan eskatzen den informazioari buruzko hausnarketa egitea.

Ikasleen asebetetze-inkesten emaitzak esan behar da DBEBko hezitzailearen gaineko balorazioa —bere ezagupenak eta gaitasuna— oso positiboa izan dela.

15.8. Euskadiko Legebiltzarreko Administrazioari zuzendutako ikastaroen programazioa

2008ko apirilean Legebiltzarreko Administrazioari Giza Baliabideen Zerbitzuak DBEBk egiten dituen jarduera informatiboei eta prestakuntzako buruzko informazioa eskatu zion Bulegoari, Herri Agintaritzaren Euskal Erakundea (HAEE) egiten eta kudeatzen ari zen Prestakuntza Planeari sartzeko pribatutasunaren eta informazioaren kudeaketaren gaineko prestakuntza. Lehengo aldia zen Legebiltzarreko Administrazioan lan egiten duten 100 pertsonen prestakuntza Informazioaren Kudeaketaren eta Datu Pertsonalen Babesaren ezagutza-esparruan sartzeari planifikatzen zena.

Premien diagnostikoa egiteko hainbat jarduera egin dira. Prestakuntza programa baten diseinua ere proposatu da. Hona hemen:

Informazioarekin kudeaketarekin eta datu pertsonalen babesarekin zerikusia duten prestakuntza-premiak HAEEk egindako prestakuntza premien azterketan jaso ziren. Berariazko tresna bakar erabili zen eginkizun jakin honetarako eta zera izan zen, idatzizko galde-sorta labur bat honako gaietarako: datu babesari buruzko alde aurreko ezagupenak eta antzematen diren zailtasunak eta prestakuntza programan parte hartuko duen langilearen lanbide profila.

Langileen artean, 33 lagun izan ziren galde-sorta borondatez erantzun zutenak (%39 gutxi gorabehera). Denetarik izan ziren, hainbat zerbitzu eta ataletakoak. Baina, hala, ere, ezin da esan pertsona informatzaileen lagina adierazgarria zenik, ez baitzuen antolakuntza-unitate guztien berri ematen, eta beraz, ez zen datu tratamendu guztien adierazgarri. Horregatik, eta zenbait langileek (legelariak, informatikariak, artxibozainak eta abar) datu-babesaren esparruan duten prestakuntza beharra zehatz jakiteko, beste azterketa bat egin behar izan zen gerora.

Galde-sorta horien azterketa ikusi eta gero, esan daiteke pertsona gehienek ez dutela pribatutasunaren babesaren inguruko ezagupenik, edo, dakitena ez dela asko. Gainera, ez dakite zenbaterainoko eragina duen gai honek haien laneko eginkizunetan. Batzuek jakin nahi dute ea nola kudeatu behar diren datuak haien lanean, ez hainbeste printzipioen eta betebeharren lege esparrua.

Egoera ikusirik, datu babesaren arloko oinarritzko mailako lehendabiziko ikastaroa diseinatu zen, zeharkako izaerarekin, eta Legebiltzarreko Administrazioari esparruko langile guztiei zuzenduta eta 2009rako programatuta.

Hala ere, esan behar da Legebiltzarreko Administrazioan badaudela zenbait langile datu babesaren eta informazioaren segurtasunaren arloan ezagupen sakonak erabiltzen dituztenak. Pertsona horien prestakuntza beharrak espezializazio maila altuagokoak dira eta erantzuna eman beharko zaie, besteei bezala. Beste alde batetik, esan behar da, erabili diren galde-sortek ez dutela balio izan behar beste informazio biltzeko langile multzo jakinei buruz, hau da, langileen ezagupen espezializatuaren arloa eta rolak, betebeharrak eta egiten duten lana kontuan hartuta.

Hala ere, egiten duten lana kontuan hartuta prestakuntza programan bat prestatu zen. Programa hori Legebiltzarreko Administrazioari antolaketa-unitateek bete eta zehaztu behar izan zuten.

(BEHIN-BEHINEKOA) LEGEBILTZARREKO ADMINISTRAZIOKO ZENBAIT LANGILE MULTZORENTZAKO PRESTAKUNTZA PROGRAMAK

Aldia	Langile multzoa, rola/ eginkizuna/ ezagupen arloaren arabera	Ikastaroko gaien arloak
2010	Lege arloetako langileak	Pribatutasunerako Eskubidea eta zenbait eskubide elkartzea (gardentasuna eta informazioaren atzipena...)
2010	Giza Baliabideetako eta Ekonomia eta Kontabilitate Kudeaketako langileak	Langileen datuen kudeaketa (errekrutatzea, hautaketa, ebaluazioa, laneko kontrola eta zaintza, osasuneko datuak ...)
2010	Informazioaren Segurtasunaren arloko langileak	Zehazteko dago (arriku handienak, auditoriak, egiaztapenak ...)
2010	Beste langile batzuk, Administrazio agiritegikoak, dokumentaziokoak, beste arlo batzuetakoak...	Zehaztu gabe dago (informazio fluxua eta dokumentazioa eta artxibatzea, espurgoa ...)

16. Beste administrazio, agentzia eta erakunde batzuekiko harremanak eta lankidetzak

16.1. Nazioarteko zenbait forotan parte hartzea.

Datu Babeserako Europako Agintaritzen Konferentzia —Udaberriko Konferentzia—. Erroma

Apirilaren 17 eta 18an DBEBk Erroman egin zen Spring Conference 2008 ekitaldian hartu zuen parte. Antolatzailea Datuak Babesteko Itailako Agintaritza izan zen.

Bi jardunaldi izan ziren eta bertan Europako 50 agentzietako agintariak bildu ziren Pribatutasuna eta Segurtasunaren ikuspenari buruz, Pribatutasuna eta enpresari buruz eta Pribatutasuna eta Teknologia berriei buruz eztabaidatzeko. Azken finean, mundu globalizatu eta hiper-teknologikoko erronkei eta segurtasunaren eta justiziaren arteko lankidetzak-politikatik eratorritako arazoez aritu ziren.

Datuak babesteko agintaritzak bat etorri ziren gardentasunak eta globalizazioak zekartzan arazoak azaltzean, eta adierazi zuten espero zutela Lisboako Itunaren ondorioz, 95/46 Zuzentarauko aurreikuspenak egokitu zituztela.

Konferentzia bukatzeko, Adierazpen bat onartu zuten Europar Batasunari eskatzeko bidaiarien askatasunarekin eta pribatutasunerako eskubidearekin eta mugen kontrolarekin lotutako ekintzen beharra eta proportzionaltasuna aztertzeko.

Datu Babeserako Agintaritzen Nazioarteko Konferentzia —Udazkeneko Konferentzia—. Estrasburgo

Durante los días 17 y 18 de abril, la AVPD participó en la Spring Conference 2008 celebrada en Roma, organizada por la Autoridad italiana de Protección de Datos.

Durante dos jornadas, las autoridades de 50 agencias europeas debatieron sobre la visión de la Privacidad y la Seguridad, la Privacidad y la empresa, la Privacidad y las Nuevas Tecnologías. En definitiva, de los retos de un modo globalizado e hiper-tecnológico, y de los problemas derivados de la política de colaboración entre la seguridad y la justicia.

Las Autoridades de Protección de datos coincidieron en las problemáticas derivadas de la transparencia y la globalización y abogaron porque las previsiones contenidas en el Tratado de Lisboa propicien la adecuación de la Directiva 95/46 a los nuevos retos.

La Conferencia concluyó con la aprobación de una Declaración en la que se solicita a la Unión Europea que evalúe la necesidad y proporcionalidad de las acciones relacionadas con la libertad de los viajeros y su derecho a la privacidad y el control de fronteras

Konferentziak 2006an egindako bileran adostu zen “Londreseko ekimena”-ri heldu zion, eta bere garapena aztertu. Ekimenaren helburua zen jardunbide egokiak partekatzea komunikazioaren, erregulazioaren eta estrategiaren esparruan, hurbiltze praktiko baterako oinarri gisa. Bertan, “Jardunbide egoki” moduan aurkeztu zen DBEBk egindako “*The lights are On*” DVDren egokitzapena. DVD hori Information Commissioner's Office (ICO-UK) erakundearena da.

Era berean, erabaki zen proposamen bat egitea datu pertsonalen babeserako eta pribatutasunerako nazioarteko estandarrak finkatzeko denen artean, pribatutasuna babestu ahal izateko mugarik gabeko mundu batean. DBEBk parte hartu zuen Ebazpen horren proposamenean.

Ebazpena 2009ko Konferentzian bozkatuko da. Konferentziak 2008ko otsailaren 20ko Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordearen Adierazpenaren berri eman zuen. Adierazpena haur eta gazteen intimitatea, segurtasuna eta duintasuna babesteari buruzko da. Horretaz gain, sare sozialetako zerbitzuen segurtasunari buruz “Berlingo Taldeak” aurkeztu zuen proposamena ere onartu zen.

IPA – International Privacy Association erakundea eratzeak aukera aztertzen segitzea adostu zen. Erakunde horren xedea izango litzateke Konferentziaren tresna bat izatea, herritarren artean eta nazioartean, pribatutasunerako eskubidearen kontzientzia sustatzeko. Era berean, pribatutasunaren nazioarteko eguna edo astea finkatzea adostu zen, egun dauden tokiko ekimen guztiak batean bilduz (Europa, Asia-pazifikoa eta abar).

Azkenik, AEPDren eskaintza onartu zen Udazkeneko Konferentzia Madrilen egiteko 2009ko udazkenean. AEPDk DBEBren laguntza izango du antolaketarako, eta alde aurreko laneko bileretako bat Bilbon izatea erabaki zen.

Telekomunikazioetako Datu Babesari buruzko Nazioarteko Lantaldea (IWGDPT – Berlingo Taldea)

Lan taldeak bi bilera egin zituen 2008an. Lehenengoa Erroman egin zen martxoaren 2an eta 4an, eta bigarrena 2008ko urriaren 14an egin zen Estrasburgon. Datuak Babesteko eta Informazio Askatasunerako Berlingo komisarioa izan zen bilera bien koordinatzailea.

Komunikazioetan eta Interneten Pribatutasuna dela-eta, herrialde bakoitzean izandako berritasunak azaldu ziren bi bilera horietan. Zenbait dokumentu informatzaile eta laneko dokumentuen proposamenak eta gomendioak aztertu zituzten bilera horietan. Bilera hauetan garrantzirik handiena izan duen gaia sare sozialena izan zen.

Udaberriko bileran “Erromako Memoranduma” izeneko laneko dokumentua onartu zen. Dokumentu horretan ENISAk emandako hainbat gomendio jaso ziren. Horko gomendioak sare sozialen azken erabiltzaileentzat —pribatutasunerako kontzientzia pizteko— nahiz zerbitzu horien hornitzaileentzat dira —egiten dituzten pribatutasun konfigurazioak, hirugarrenen bidezko atzipenak, indexazioak eta abar direla eta—.

16.2. *Lankidetzak datuak babesteko Estatuko beste agentzia batzuekin*

16.2.1. *Koordinazio taldeen funtzionamendua*

Taldeek hainbat bilera egin zituzten, batzuk presentzialak eta beste batzuk bideokonferentziaz. Bilera horietan jarduteko hainbat irizpide komun zehaztu zituzten eta zenbait jardura antolatu zituzten elkarrekin.

Zuzendariak koordinatzeko taldea

Kontrol agintaritzen arteko lankidetzarako ildo estrategikoak adosteko eta ildo estrategiko horiek gauzatu eta jarraipena egiteko asmoz, egun dauden datuak babesteko agentzietako zuzendariak bi bilera egin zituzten 2008an, bata urtarrileanartzelona eta bestea urrian Madrilen. Hona hemen bi bilera horietan adostutako punturik aipagarrienak:

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua indarrean sartu izanak izan duen garrantzia. 2008an sartu zen indarrean.

- herritarrek datu pertsonalen babesarekiko dituzten pertzepzioen eta jarreraren azterketen emaitzak agentzien artean trukatu ditzaketela, eta agentziek burutzen dituzten antolaketa, modernizazio, komunikazio eta prestakuntza arloko jarduerak hobetzeko erabili.
- DBLO hausteagatik irekitzen diren prozeduretan hartzen diren ebazpenak eraginkorrak direla bermatzeko neurriak sakon aztertu beharra dagoela.
- komenigarria izan daitekeela datu pertsonalak babesteko eskubideaz herritarrek duten iritziaren gaineko prospekzioak egitea aldizka.
- oinarritzko eskubide honekiko sentsibilizazio eta zabalkunde kanpainak egiteko premia.
- ikerketak egin behar bada eta horretarako eskumena datuak babesteko agentzia batek baino gehiagok badute, ikuskaritza unitateen arteko koordinazioa indartzea komenigarritzat jotzea.
- Datuak babesteko agentziei aitortzea kamera eta bideokamera sistemen bidez egiten diren irudi grabaketen eta irudi tratamenduen gaineko eskumena dutela; beti ere, abuztuaren 4ko 4/1997 Lege Organikoan aurreikusitako gobernu agintaritzen berezko eskumenei kalterik egin gabe.
- adieraztea lege mailako arau baten premia dagoela arautzeko web orrietan argitaratzen diren epaiak, epaietan alde bietako datu pertsonalak ageri direlarik.

Lege Aholkularitzak Koordinatzeko Taldea eta Ikuskaritza Taldea.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoko Lege Aholkularitza eta Ikuskaritza Zerbitzuak bi lan taldetan hartzen du parte: Lege Aholkularitzak Koordinatzeko taldean eta Ikuskaritza Taldean.

Lan talde horiek nola funtzionatu duten finkatzeko arauak eta prozedurazkoak adostuta daude. Arau horien arabera, taldeak izaera aholku-emailea du eta hiru hilean behin bilduko da, bilera presentzialak eta bideokonferentzia bidezko bilerak eginez txandaka.

2008an Lege Aholkularitzak Koordinatzeko taldea hiru aldiz bildu zen eta Ikuskaritza beste hirutan.

Lege eta arauen azterketa

- 2008/02/12: Bilera horretan lau agentzietako lege aholkulariek honako hiru gai hauek aztertu zituzten: hatz digitalari eman behar zaion tratamendua datu babesaren ikuspuntutik; hildako pertsonen datuak eta partzuergoen fitxategiek izaera publikoa ala pribatua duten.
- 2008/02/28: Bilera horretan saio monografiko bat egin zuten DBLO garatzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren inguruko zenbait zalantzaren gaineko irizpideak bateratzen saiatzeko; izan ere, berehala sartu behar zen indarrean, 2008ko apirilaren 19an. Legelariak erregelamendutik datozen arazoen berri eman zuten, erregelamendua aplikatzeko orduan irizpide bateratuak izateko.
- 2008/05/08: Bilera horretan bideo zaintzari buruzko monografiko bat egin zuten. Eztabaida datu-babesaren esparruko kontrol agintaritzek poliziak egiten duen bideo zaintzaren esparruan duten eskumena izan zen. Poliziak egiten duen bideo zaintza abuztuaren 4ko 4/1997 Lege Organikoak arautzen du.

Ikuskaritza taldea

- 2008/03/05: Bileran datu babesaren arloko zehapen-prozeduretatik eratorritako zenbait arazo eta eskubideen babesaren prozedurako espezialitateak aztertu zituzten. Hona aipagarrienak: alde zuzeneko eginbideak iraungitzearen jokoak, zergadunei zerga datuak jakinarazteko posta arruta erabili ote daitekeen, nola egiaztatu ordezkaritza eskubideak

babesteko erreklamazioetan, sindikatu afiliazioari buruzko daturik eman ahal dizkien sindikatuak zerga administrazioei, kamerak eta bideokamerak erabiltzea, AZETA eskubideez baliatzea historia klinikoen kasuan, Interneten argitaratutako datuak ezerezteak eta epai irmoak webetan argitaratzea.

- 2008/06/20: Bileran honetan adin txikikoek egindako salaketei eta erreklamazioei buruzko hainbat gai proposatu zitzaizkien lan taldekoei. Horretaz gain, beste hauek ere aztertu zituzten: atzipen eskubidearen edukia; salatzaileei agentzietatik proposatzea aurka egiteko eskubideaz baliatzeko aukera; “non bis in idem” printzipioa ezartzea datuen tratamenduaren eta komunikazioaren esparruan; ea agentzia autonomikoek ezar dezaketen Datuak Babesteko Espainiako Agentziak helburu historikoetarako, estatistikoetarako eta zientifikoetarako datuak gordetzeko edo baimentzeko izapidetzen duen prozedura.
- 2008/11/10: Bileran landutako gai guztietatik aipagarriena da Administrazio Publikoen jarduerako gardentasunaren eta datu pertsonalen babeserako oinarriko eskubidearen arteko talka planteatzen zuten zenbait kasu aztertu zirela. Zentzu horretan bereziki aztertu zen zer nolako tratamendua eman behar zitzaien norgehiagoka-prozeduretako argitalpenei, iragarki-oholen bidez edo web guneen bidez argitaratzean. Bileran, besteak beste, ondorio honetara iritsi ziren: agentzia guztiek uste dute datuen kalitatearen printzipioa gailendu behar dela beste guztien gainetik, eta haien iritziz argitalpenak egitean, lortu nahi den helbururako behar diren datuak baino ez dira emango, hau da, ahalik eta datu gutxien emango dira.

Erregistroa

2008an hiru bileran egin ziren. Bileren helburu nagusia izan zen erregistroen arteko informazioa trukatzearen jarraipena egitea. DBEBk hasiera-hasieratik bidaltzen ditu inskripzio guztiak Datuak Babesteko Erregistro Nagusira, eta bidalketak adostutako moduan egiten dira, hau da, XML formatuan eta Internet bidez, sinadura elektronikoarekin.

Bileretan beste gai hauek ere aztertu ziren:

- 2008/02/28: (Madril) Bileran honen helburu nagusia izan zen aztertzea ea nolako eragina izan zuen DBLO garatzeko Erregelamendu berriak erregistroen funtzionamenduan. Batez ere, aztertu nahi zen ea nola jokatu fitxategi arduradunen batek zuzenean egiten dituen inskripzioak Datuak babesteko Erregistro Orokorrean, dena delako dagokion erregistro autonomikoari ezer jakinarazi gabe. AEPDk erregistroen arteko informazio trukaketarako protokoloari buruzko dokumentu bat aurkeztu zuen, eta dokumentua aztertu zen. Horretaz gain, bidalketak egiteko orduan beste erregistroetan gertatzen diren zailtasun teknikoak eta egoera partikularrak ere aztertu zituzten.
- 2008/09/30: (Madril) Merkataritza ganberak DBLO garatzen duen Erregelamenduaren 2. artikulua interpretazioarekin duten problematika aztertu zen, eta ofiziozko inskripzioena urtean nola jokatu ere landu zen. Azkenik, AEPDra jakinarazpenak egiteko erregistro sistema berri bat garatzeko proiektuaren berri eman zuen AEPDk.
- 2008/12/11 (Bartzelona) Erregistroek gaituta duten fitxategien deklarazio sinplifikatuari buruzko hainbat konponbide aztertuz iren. AEPDk Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak (CGPJ), organo judizialak direla-eta, jakinarazi dizkion fitxategien berri eman zuen, eta adierazi zuen autonomia erkidegoetako gobernuen ardurapekoak diren zenbait fitxategi bakoitzari dagokion datu babeserako bulegoaren erregistroan inskribatu beharko direla.

Antolaketa, Modernizazioa, Komunikazioa eta Prestakuntza

DBEBko Idazkaritza Nagusiak agentzia guztiak koordinatzeko talde batean hartzen du parte. Koordinazio taldearen izena da Antolaketa, Modernizazioa, Komunikazioa eta Prestakuntza. Taldeko kide dira, ezinbestean, datuak babesteko agentzietako idazkari nagusiak. Baina idazkaritzetako beste kide batzuk ere hartu ohi dute parte taldearen bileretan.

2008an laneko hiru bilera egin ziren, bi bideokonferentziaz (uztailean eta abenduan) eta hirugarrena Bartzelonan izan zen, APDCATen egoitzan.

Topaketa horien helburua zen agentziak lantzen ari ziren proiektuen berri ematea eta informazioa trukatea, eta aztertzea ea merezi zuen horietako proiekturen edo esperientziaren batean beste agentziaren batek edo guztiek parte hartzea.

Hona hemen aztertutako zenbait gai eta proiektu:

- Agentzien parte hartzea CLI elkartearen PROMETEO proiektuan.
- Agentzien parte hartzea Montrealeko Unibertsitateko Zuzenbide Publikoko Ikerketa Zentroaren PRIBATUTASUNA ETA SEGURTASUNA proiektuan.
- Aztertzea ea bideragarria den agentzia guztietako langileentzako ikastaroak antolatzea (Koordinazioaz AEPD arduratuko da).
- Herritarrek datu pertsonalen babesari buruz duten pertzepzioari buruzko inkesta (azterketa kuantitatiboa).
- Administrazioek datu pertsonalen babesari buruz duten pertzepzioari buruzko eta datu babesaren egoerari buruzko inkesta.
- Erreduko kodeak administrazioentzat. Betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko sistemak. Jardunbide egokiak kreditatzeko zigilua.
- Funtzionarioentzako prestakuntza materialak eta informazio materialak egiteko proiektu bateratua, Datuak Babesteko Kataluniako Agentziak koordinatua.
- Datu babesari buruzko azterketa bat elkarrekin egiteko proiektua. Azterketaren edukia, ekarpenak eta gauzatzeko sistema zehazteke. Koordinazioaz Madrilgo Autonomia Erkidegoko Agentzia arduratuko da.
- Gazteentzako dibulgaziozko edukien proiektu bateratu bat, DBEBk koordinatuta.
- Norvegiako Agentziaren prestakuntza materialak egokitzea
- Datu Babesaren Europako Eguna. Agentzia bakoitzak aurreikusitako ekintzak. Guztien artean ekintzaren bat finkatzeko aukera.

16.3. *Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren Kontseilu Aholku-emailean parte hartzea*

DBEBren zuzendariak Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren Kontseilu Aholku-emailean hartzen du parte. 2008an Kontseiluak egin zituen bi saioetan egon zen: bata, uztailaren 10ean izan zen, eta, bestea, abenduaren 17an.

16.4. *Datu pertsonalen babesaren arloko hitzaldietan, mintegietan eta bestelako jardueretan parte hartzea*

Datuak babesteko Euskal Bulegoak hitzaldi eta jarduera hauetan hartu zuen parte 2008an:

- **"DBLO garatzen duen Erregelamendu berria"** Jardunaldia. APD, Garrigues – Nextel. Bilbao, 2008ko otsailaren 8a. – Donostia, 2008ko martxoaren 5a.
- **Bideo zaintzari buruzko Jardunaldiak 2008.** IIR ESPAÑA. "Datuak babesteko agentzien eginkizuna irudien erregulazioaren eta kontrolaren arloan. Madril, 2008ko otsailaren 12a.
- **Datu Babesari buruzko Masterra.** Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, IDT Institute of Law and Technology. Bartzelona, 2008ko martxoa.
- **DBLOren Erregelamendu berriari buruzko jardunaldia: Berritasun garrantzitsuenak.** "Datu pertsonalen babesak 15 urte bete ditu: garapena eta joerak". Landwell PricewaterhouseCoopers. Bilbao, 2008ko apirilaren 9a.
- **Sarrikoko Ekonomia Fakultateko Ikasle Ohien Elkartearen hitzaldia.** Bilbao, EHU, Sarriko, 2008ko apirilaren 24a.
- **EUDEL - Euskadiko Udalen Elkartea Jardunaldia.** "Euskal Toki Erakundeak, Herritarren pribatutasuna babesteko proiektu bat". Bilbao, 2008ko maiatzaren 20a
- **Osasuneko Datuak Babesteari buruzko V. Foroa.** Osasunaren Informatikako Espainiako Elkartea (SEIS). "DBLOren Erregelamendu berriaren eragina osasun sisteman". Iruñea, 2008ko maiatzaren 20a eta 21a.
- **"DBLO garatzen duen Erregelamendu berria"** Jardunaldia. Bilboko Notarioen Elkargoa. Bilbao, 2008ko maiatzaren 22a.
- **Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroak.** Eusko Legebiltzarrak eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoak antolatutako Mintegia. "Legebiltzarreko informazioaren atzipena eta tratamendua. Datuak babesteko agentzien ikuskera". Donostia, 2008ko uztailaren 29a
- **Datuak Babesteko Agentzia Autonomikoen V. Topaketa:** "Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamenduaren azterketa". Madril, 2008ko urriaren 28a.
- **Andaluziako Herriaren Defendatzailea.** Datu pertsonalen babesari buruzko Mintegia. "Datu Pertsonalak Babesteko Agentziak. Agentzien Eskumenen eta Eginkizunen Azterketa". Sevilla, 2008ko azaroaren 27a

16.5. *Hitzarmenak*

16.5.1. *Izenpetutako hitzarmenen jarraipena*

Hainbat jarraipen bilera egin ziren Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta EUDELekin izenpetutako hitzarmenen jarraipen batzordeekin. Bileren helburua izan zen egindako jarduerak berrikustea eta 2008ko jarduera planak finkatzea.

16.5.2. Hitzarmen berriak izenpetzea

Hitzarmena Errioxako Unibertsitatearekin

2008ko urriaren 6an DBEBren eta Errioxako Unibertsitatearen arteko lankidetzako esparru hitzarmena izenpetu zen. Hitzarmenaren xedea da bi erakundeen liburutegi zerbitzuen arteko lankidetzarako esparru bat finkatzea DIALNET proiektuaren baitan.

Lankidetzak honi esker, aurrerantzean DBEBren erabiltzaileek DIALNET erabiltzeko aukera izango dute, era pertsonalizatuan eta askean.

Errioxako Unibertsitateak bere bildumen erregistro bibliografikoen datua helaraziko dizkio DBEBren Liburutegiari eta DBEBk bulegoan jasotzen dituzten aldizkari espezializatuen edukiak helaraziko dizkio aldian behin eta sistematikoki.

16.6. Innobasqueri atxikitzea eta Innobasqueko taldeetan parte hartzea

DBEBk beste erakunde batzuekin aliantzak sortzeko politika du abian, bi erakundeentzat edo bietako batentzat onuragarria bada behintzat, eta, bereziki, DBEBren bezeroentzat eta intereseko agenteentzat onuragarria bada, eta, aldi berean bizi garen gizartearen garapenerako ere, zentzu zabalean bada ere, lagungarria bada.

Gure erkidegoaren garapenean laguntzeko xede orokorra izanik, DBEBk Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentzian sartzeko eskaera egin zuen.

Innobasque irabazi asmorik gabeko elkarte pribatua da, Euskadin eremu guztietan berrikuntza, espiritu ekintzailea eta sormena koordinatu eta bultzatzeko sortua. Innobasque Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileek osatzen dute, enpresa pribatuek, euskal herri-erakundeek, euskal enpresaburuen eta langileen ordezkari instituzionalek eta berrikuntzarekin zerikusia duten era guztietako erakundeek.

Innobasqueren asmoa da eragile guztiei plataforma eta lankidetzak sare indartsu bat eskaintzea, eta horren bitartez euskal gizartean berrikuntzarekin lotutako balioak eta jarrerak sustatzen dituzten jarduerak egitea: kanpoan Euskadi berritzailearen irudia zabaltzea, I+D+I-ren esparruan aurre-aurrean agertzea eta euskal enpresa eta erakundeetan berrikuntza dinamikak sortzen laguntzen duten bestelako jarduerak batzuk ere egitea.

2008ko irailaz geroztik, DBEB Innobasqueko kide da BAZKIDEAren figurarekin, eta Berrikuntzako "Bideratzaileen" kolektiboan dago. (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, merkataritza ganberak eta abar).

Bulegoak Gizarte Berrikuntzaren arloko talde edo i-Taldeetan hartu zuen parte. Hona hemen:

- GB2 Gizarte prozesuak – Kontzeptualizazioa eta Adierazleak
- GB3 Gizarte prozesuak – Jarrera berritzaileen "balioak"
- GB4 "Gobernantza"

16.7. DBLO garatzen duen Erregelamendu Berria Onartzearen ondoriozko jarduerak (Berariazko edukiak web orrian, berariazko elkarrizketak Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzarekin eta EJI Erekin...)

DBLO garatzen duen 1720/2007 EDk onartzen duen Erregelamendua 2008ko apirilaren 19an sartu zen indarrean. Segurtasun neurrien ikuspuntutik berritasunik aipagarriena da automatizatu gabeko fitxategiak ere DBLOren 9. artikuluan ezarritako segurtasun mailen araubide orokorra bete behar dutela aurrerantzean. Erregelamenduak lehengo hiru segurtasun mailak bere horretan uzten

ditu eskuzko fitxategietarako (oinarrizkoa, erdi mailakoa eta goi-mailakoa) eta euskarri ez-automatizatuentzako berariazko neurriak finkatzen ditu, izaera eta antolamendu berezia dutelako.

Horrekin lotuta, DBEBk hainbat jarduera gauzatu ditu berrikuntza garrantzitsuenen eta ukitutako alderdien zabalkundea egiten laguntzeko EAEko administrazio publikoetan, batez ere, segurtasun neurriei buruzko kontuetan. Hori egiteko, beritasun guztiak zehatz-mehatz biltzen dituen materialak egin dira, bereziki azpimarratuz oraingo EDk eta lehengo Segurtasun Neurriei buruzko 994/1999 EDrekin dauzkaten desberdintasunak. Materialak denen eskura daude Bulegoaren web orrian.

Horretaz gain, berrikuntzen gaineko argibideak emateko hitzaldiak ere egin dira fitxategien arduradunei, segurtasun arduradunei eta tratamendu-eragileei zuzenduta.

17. Barne kudeaketa

17.1. Pertsonen kudeaketa

17.1.1. 2008ko aurrekontu-plantilla

Hona hemen aurrekontu-plantilla:

GOI-KARGUAK ALTOS CARGOS	/ DOTAZIO KOPURUA / N. DOTACIONES
ZUZENDARIA / DIRECTOR	1
FUNTZIONARIOAK FUNCIONARIOS	/ DOTAZIO KOPURUA / N. DOTACIONES
28. maila / nivel 28	3
26. maila / nivel 26	4
25. maila / nivel 25	2
24. maila / nivel 24	1
23. maila / nivel 23	1
20. maila / nivel 20	1
18. maila / nivel 18	4
GUZTIRA / TOTAL	16

17.1.2. 2008an lanean egon diren langileak

2008ko ekitaldian honako lanpostuak egon ziren beteta Bulegoan:

- Idazkari Nagusia. Destinoa izendapen askez eskuratu zuen.
- Erregistroaren eta Teknologia Berrien arduraduna, behin betiko destinoarekin. Destinoa lekualdatze lehiaketa bidez eskuratu zuen.
- Lege Aholkularitzaren eta Ikuskaritzaren arduraduna, behin betiko destinoarekin. Destinoa lekualdatze lehiaketa bidez eskuratu zuen.
- Legelari instruktorea, zerbitzu eginkizunetan izendatua.
- Legelari instruktorea, zerbitzu eginkizunetan izendatua.
- Legelari instruktorea, bitarteko funtzionarioaren izendapenarekin.
- Auditorea-informatikaria-ikuskatzailea, zerbitzu eginkizunetan.
- Auditorea-informatikaria-ikuskatzailea, zerbitzu eginkizunetan.
- Prestakuntza, Informazio eta Dokumentazio teknikaria. Destinoa lekualdatze lehiaketa bidez eskuratua.
- Itzultzaile-dokumentalista, zerbitzu eginkizunetan izendatua.
- Kudeaketaren administrari koordinatzailea, behin betiko destinoarekin. Destinoa lekualdaketa lehiaketa bidez eskuratua.
- Administrari informatikaria, zerbitzu eginkizunetan.
- Goi-kargudunaren idazkaria, zerbitzu eginkizunetan.
- Administraria, behin betiko destinoarekin. Destinoa lekualdaketa lehiaketa bidez eskuratua.

Bestalde, zerbitzu eginkizun bat eman zen Dokumentazio Zentroa eta Informazioa eta Dokumentazioa Kudeatzeko eta Artxibatzeko Zentroaren proiektuaren ardun gisa.

17.2. Aurrekontu, kontabilitate eta ondare kudeaketa

17.2.1. 2008ko aurrekontua

2/2004 Legearen 14. artikulua honakoa ezartzen du: "Datuak Babesteko Euskal Bulegoak urtero-urtero aurrekontu-aurregitasmoa egin eta onartu beharko du. Gero, Eusko Jaurlaritzara bidali beharko du, han, behar bezain ondo bereizita, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan sar dezaten, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-sistema arautzen duten legeen arabera.

Aipatutako prozedura bukatu eta gero, DBEBk 2008rako gastu-aurrekontua onartu zuen. Hona hemen laburpena:

GASTUAREN AZALPEN ETA KONTZEPTUA CONCEPTO Y EXPLICACION DEL GASTO	GUZTIRA/TOTAL
1. Kapituluak: Langile Gastuak Capitulo 1: Gastos de Personal	1.045.898,00
2. Kapituluak: Jarduera Gastuak Capitulo 2: Gastos de Funcionamiento	570,228,00
6. Kapituluak: Inbertsio Errealak Capitulo 6: Inversiones Reales	278.100,00
8. Kapituluak: Finantza-Aktiboen Gehikuntza Capitulo 8: Aumento de Activos Financieros	4.700,00
Gastuak Guztira Total Gastos	1.898.926,00

17.2.2. 2008ko Aurrekontu exekuzioa

Aurrekontu exekuzioa ondoko xehetasunen arabera egin da:

2008KO AURREKONTU ARRUNTAREN SARREREN ETA GASTUEN LABURPENA

2008KO SARREREN AURREKONTUA				
Sailkapena KAPITULUA	KAPITULUEN IZENA	Hasierako aurreikuspena	Eskubide garbiak	Gauzatzearen egoera
4	Ohiko transferentziak	1.590.826,00	1.590.826,00	100%
5	Ondare-sarrerak	30.000,00	109.389,94	365%
7	Kapital transferentziak	278.100,00	278.100,00	100%
	Sarrerren batura guztira.	1.898.926,00	1.978.315,94	104%

2008KO GASTUEN AURREKONTUA				
Sailkapena KAPITULUA	KAPITULUEN IZENA	Hasierako kredituak	Ordaindu beharreko diru izendapenak	Gauzatzearen egoera
1	Langileen gastuak	1.045.898,00	965.902,20	92%
2	Ohiko gastuak	570.228,00	357.828,34	63%
4	Ohiko transferentziak		300	100%
6	Benetako inbertsioak	278.100,00	123.368,42	44%
8	Finantza aktiboak	4.700,00		
	Gastuen batura guztira.	1.898.926,00	1.447.398,96	76%

Ondare-sarrerak (bankuko interesen ordainketak) aurreikusitakoak baino askoz handiagoak izan dira (Batetik, Eusko Jaurlaritzak eta kreditu-erakundeek izenpetutako hitzarmenean ezarritako interesak aplikatu direlako, eta, bestetik, geldikin-gordailutik eratorritakoak, handi samarra baita).

Gastuaren exekuzioa dela-eta, zera aipatu beharrean gaude:

- I. Kapituluaren %92 exekutatu dela arrazoitzeko, aipatu behar da arian-arian lanpostuak betetzen joan zirelako gertatu zela. Hala ere, oraindik guztiak ez dira bete.
- II. Kapituluaren %63 exekutatu zela arrazoitzeko, esan behar da, batez ere “Publizitatea eta erakunde komunikazioa” partidatik ez zela hainbeste exekutatu, ez zelako egin herritarrei zuzendutako kanpainarik, harik eta pertzepzio sozialari buruzko inkesta bukatu arte. Horretaz gain, ohiko administrazio egituraren funtzionamendu gastu ere txikiagoa izan zen, lanpostu guztiak ez zirelako bete, hain zuzen ere.
- VI. Kapituluaren %44 exekutatu zen. Zatik garrantzitsuena zenbait aplikazio informatiko garatzeko zen, eta oinarrian zegoena zen sistemak aplikatzeko plana 2007a osoa urreratuta zegoela hasi zirela aplikatzen.

17.3. Baliabide materialak

17.3.1. Egoitza

2008an Apaizgaitegiaren eraikinean (Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71-3) hasiera batean aurreikusita zegoen tokiaren %92 bete zen poliki-poliki.

17.3.2. Beste zenbait kontratu txiki

Hainbat kontratu txiki egin ziren DBEBren funtzionamendua bermatzeko. Garrantzitsuenak honakoei buruzkoak izan ziren:

- lokalen alokairua
- ekipo informatikoen alokairua
- fotokopiagailuen mantentze-lana
- material informatikoa eta bulegokoa
- egunkariak, aldizkariak eta liburuak erostea
- posta bidezko komunikazioen zerbitzua
- aplikazio informatikoen mantentze-lanak eta ustiapena
- argitalpenak argitaratzea eta banatzea
- altzairuak erostea
- ikus entzunezkoa ekipoak erostea (bideokonferentzia sistema instalatzea)
- ekipo informatikoak erostea
- bideoak itzultzea, egokitzea eta bikoizketa egitea
- hezkuntza sistemarako materialak egitea
- web orria eguneratzea eta hobetzea

- herritarrek datu babesari buruz duten pertzepzio sozialari buruzko azterketa kuantitatiboa egitea
- eskuliburuak eta beste zenbait elementu diseinatzea
- memoriaren eta zenbait eskuliburu editatzea
- EJI Erekin izenpetutako kontratuaren bidezko zerbitzuak: erakunde sarea, aplikazioak eta tresnak instalatzea, ostatu ematea, material informatikoa lagatzea, lizentzien mantentze-lana egitea eta lizentziak erostea, eta abar.

17.4. Egitura teknologikoa eta aplikazioak garatzea eta hobetzea

Koordinazio bileren gelan instalatuta dagoen bideokonferentziaren erabilera normalizatu egin zen 2008an. Sistema honi esker, bilera presentzialetarako joan-etorri gutxiago egin ziren. Agentzien arteko urteko bilerak gehienak sistema honen bitarte zegin ziren.

Aplikazioak mantentzeko eta garatzeko DBEBren eta EJI Eren arteko lankidetzak hitzarmenak (addenda 2008) honako aplikazioak garatzea eta hobetzea ekarri zuen:

- Datu Pertsonalen Fitxategien Erregistroaren aplikazioan zuzenketak egiteko mantentze-lanak.
- Datu Pertsonalen Fitxategien Erregistroaren aplikazioan egokitzapenak egiteko mantentze-lanak.
- Espedienteak kudeatzeko sistemaren azterketa.
- DBEBrekin lankidetzan aritzea sistemen betekizunen katalogoa definitzeko
- Sistemak eraikitze oinarri teknikoen plegua egitea
- ASI (Informazio Sistemaren Azterketa)
- Sistemak eraikitzea
- Sistemak hedatzea eta ezartzea

